

Islamari buruz ikonoen bidez zabaldutako mezuak, euskarazko testuliburuetan

Mario Unamuno Plazaola

Gizarte Zientzien Didaktika Saila
Bilboko Irakasle Unibertsitate Eskola
Euskal Herriko Unibertsitatea

GAKO-HITZAK: Testuliburuaren analisia. Islama. Ikonoa.

1. SARRERA

Lan honen jatorria bikoitza da. Jatorri hurbila 2006-2207 ikasturtean egin dudana Doktorego ikastaroetako bigarren urteko Ikertzeko Gaitasunerako frogarako lana da. Ildo horretan, ezin dut, eta ez dut nahi, aipatu gabe utzi Begoña Bilbao Bilbaori eta Karmele Perez Urrazari diedan esker ona, nire lana zuzentzea onartu zutelako. Zorretan nago beraiekin arrazoi ugarirengatik, baina bi aipatu nahi nituzke bereziki: batetik, lanaren gorabeherak eta hainbat eta hainbat bertsio irakurtzen, iruzkintzen, zuzentzen eta abarretan eman dituzten orduak eta hartu duten pazientzia eta ganora; bestetik, oinarritzko irizpide eta eredu metodologikoak eman dizkidate, beraien eskarmentuan oinarrituta. Horrengatik guztiagatik, mila esker.

Jatorri urrunean, aurretiaz egindako beste ikerketa esperientzia bat dago. 1994 eta 1995 bitartean, artean Gobernu Kanpoko Erakunde izan den eta egun EHUko Unibertsitate Institutu ere baden Hegoa lantaldeko kide nintzen. Estatuko lau hizkuntza nagusienetako testuliburuari buruzko ikerketa batean parte hartzeko gonbitea iritsi zitzaigun. Ikerketarako proposamena Islamische Wissenschaftliche Akademie (IWA) islamiar ikerketei buruzko Koloniako erakundeak egin zigun. Berez, asmo askoz eremu zabalago baten barnean kokatzen zen, IWAk Europako 22 herrialdetan baitzeraman proiektua aurrera. Bartzelonako Unibertsitateko Navarro irakasleak argitaratu zituen emaitzak: Navarro, J.M. [Koord.], (et al.) (1997): *El islam en las aulas: Contenidos, silencios, enseñanza*, Bartzelona: Icaria.

Ikerlan hartan produkzio idatziari egin genion arreta, eta ez grafikoari, horrek gure indarrak gaintzen zituelakoan. Orain, ikonoak eta beraien birtutez zabaltzen diren mezuak aztertu nahi ditugu.

Bukatzeko, edozein ikerlanek atzean auzi sozial jakin batzuei erantzun nahia edo beharra duelakoan edo izan behar duelakoan nago, baita ustez edo moldez akademikoenak direnetan ere, eta gure kasuan, lana abian jartzeko bultzatu gaituen gogoia, ezin hobeto jasota dago Daniel Innerarityren hitzetan:

[...] gure munduaren ezaugarrietako bat heterogeneitate handia da; orain arte ezagutu edo onartu dugun baino kultura-desberdintasun askoz handiagoak babestu beharraren aurrean gaude. Kultur aniztasunari (datu kuantitatiboa), identitateen malgutasuna gehitu zaio (datu kualitatiboa).

Errealitate horrek erronka berri baten aurrean jarri gaitu: kontua da ba ote dugun topaketaren, elkartrukearen eta itzulpenaren pedagogía, errealitate berri horri erantzungo diona eta kulturen aniztasuna ez duena disolbatuko mundu itxi eta komunikazio gabeen arteko elkarren ondoan jartzeko exotiko batean (Innerarity 2006, 143-144.).

Erreproduzioaren Teoriaren arabera, bestelako hezkuntza-jardueretan bezala testuliburuaren bitartez ere (baliabide didaktikoen bidez, oro har), ikasleengan nola-halako eragina izango duten mezuak zabaltzen direla kontuan hartuta (Ramírez 2005, 5-6), aztertu nahi dugu nolakoak ote diren gure gizarteko zati gero eta handiago, gero eta nabarmenagoa den komunitate jakin bati buruzkoak, horrek zer nolako gizartea eraikitzen ari garen, gure aurrekoek zer nolakoa osatu duten, eta zer nolakoa nahi dugun hausnartzeko bidean lagun egingo gaituelakoan.

2. KOKAPEN TEORIKOA

Ondoko orrietan, euskarazko testuliburuak islamari buruz zabaltzen dituzten mezuen izaera eta nolakotasuna aztertu nahi genuke. Ezer baino lehen, lan honek definizio saio bat eskatzen du, hiru arlotan: A) Zer da islama, zer hartuko dugu islamtzat? B) Zergatik testuliburuak aztergai? D) Zergatik ikonoak aztergai?

Jarraian, aztergaia eraikitzen duten termino hauek definitzen saiatuko gara.

2.1. Zer da islama?

Zer da islama, zer hartuko dugu islamtzat? Oso garrantzitsua deritzogu definizio lan horri, nahasmen handia dagoelako terminoak bere baitan hartzen duen errealitateari buruz, bai kaleko erabilera arruntean, baita erregistro jasoagoetan ere. Zer da islama: erlijio jakin bat?, kultura jakin bat?, egitate politiko bat?...

Izan ere, islam terminoaren kaleko erabilera arruntari bi ezaugarri anizmaten dizkiogu, eta sarritan baita erabilera jasoagoetan ere.

1. Adiera-aniztasuna: bere bi adiera erabilienetan terminoa erabili ohi dugu bai erlijio jakin bat adierazteko, baita erlijio horri lotutako zibilizazio edo kultura moldea. Eta biekin nahasian, bi horien adierazpen politikoa ere. azkenaldian *islamismo* terminoa¹ eta bere parekoak: *fundamentalismo* (Maíllo 1996, 87-90; Newby 2004, 128), *integrismo* (López Alonso 2001, 365) azken adiera horrekin oso lotuta ageri dira, islamaren adierazpen politiko eta, nagusiki, bortitzaren zentzuaz, sarritan molde desberdinetan: *fundamentalismo* (Maíllo 1997, 87-90; Newby 2002, 128), *integrismo* (López Alonso 2001, 365). Terminologia hau nahiko berriki ezarria da, azken hamarkadetan, eta batzuetan oso bestelako jatorria du; esaterako, *fundamentalista* terminoa, jatorriz, Estatu Batuetako XIX mendeko kristau protestanteen artean modernizazio joerari aurre egin asmoz sortutako mugimenduei aplikatzen zitzaion (Newby 2002, 128; Arístegui 2004, 34).
2. Indefinizio kutsu bat, esangura horiek guztiak elkarren artean nahasian eta bereizi gabe erabiltzeko joera. Arkounek zenbait egoera politikori buruz dioenez (Irango iraultza islamikoa, Afganistango tribuen erresistentzia erregimen sozialistari, turismoaren aurkako bonbak Turkia, Siria eta Egipton, lege koranikoaren aplikazio heresia Saudi Arabian, etab.), kanpoko begiraleek egoera horietako xehetasunak sinplifikatzeko joera dute, *islam* terminoa neurritz gain eta kontsideraziorik gabe erabiliz... eta adituek kaleko jendeak bezain neurrigabe ez ote duten jokatzeko galdetzen du (Arkoun 1997, 427).

Bi ezaugarri horiek halako nahasgarritasun kutsu batez jantzi dute terminoa. Nahasmenaren eta esangura-aniztasunaren bizkarrean, mendeetan zehar Mendebaldeko kulturaren oro har nagusitu den islamarekiko interes eskasa dago, baita Espainiar estatuan eta Euskal Herrian ere (Aixelà 2001; Balta [Bil.] 2006, XVII-XXII; Halliday 2005, 153-182; Martín Muñoz & Moure 2006, 13-21). Aldi, azken aldian interes eta jakin-mina oso azkar hazi da, zenbait gertakari sozio-demografiko eta politiko medio, eta horren ondorioz estereotipoen fenomenoaren (Balta 1994, 29-44)², azkar hazi da.


¹ Gaztelera zuzenean ematen diote *islamismo* terminoari, islama praktikatzeko pertsona eta herrialdeen multzoarena, hots, hiztegi espezializatuek *islamari* ematen dioten adieretako bat, adiera lehen eta nagusia. Esaterako *DRAE* (1992ko ed.), Julio Casaresen *Hiztegi Ideologikoa* (1987koa), María Moliner (1989koa), eta baita, euskaraz, *Harluxet Hiztegi entziklopedikoa*, Interneteko bertsioan (2006).

² Pentsak sarritan jaso du horrek gizartean utzitako isla:

Martín Muñoz (2006): «Islam: todos no son Uno» in *El País*, 2006-X-28

«La UE advierte de que la aversión contra los musulmanes crece en el continente» in *El País*, 2006-XI-29.

Faktore sozio-demografikoen inguruan, egia da Europako beste herrialde eta estatu batzuetan —Frantzia, Britainia Handia, Alemania kasu— deskolonizazioarekin batera hasi zirela iristen lehen etorkin musulmanak (Roy 2003, 13-15), baina gurean nahikoa fenomeno berria dugu, eta azken urteetan azelerazio bidean dagoen arren, nahiz eta haur etorkinen portzentajeak gora egin nabarmen (Taulés 2004, 75-80; Etxeberría 2006b, 45; Sep-tién 2006, 19-22), datuen arabera artean tasa txikian gaude Estatuko batez bestekoarekin erkatuz gero (ez horrela Nafarroako Foru Erkidegoa).



Iturria: http://www.mec.es/mecd/estadisticas/educativas/dcce/DATOS_Y_CIFRAS_WEB.pdf

1. grafikoa

Ikasle atzerritarren portzentajea Erregimen Orokorreko Irakaskuntza Ez-Unibertsitarioan, Erkidegoka. 2006-07 Ikasturterako, aurreikusitako datuak

Etimologikoki, *islam* terminoaren esanahia *bizimodu zintzo, osasuntsu egon/izan* adierazten duen arabiar «s-l-m» erroitik eratortzen da; «bake» ere erro beretik sortzen da: *salam* arabieraz eta, familia bereko, *shalom* hebraieraz (Navarro 1997, 243). Erro horrek, *islâm* adieran, Alaren boronda-

«Protestas en un pueblo de Ávila por la apertura de una mezquita», in *El País*, 2004-XI-10.

«AEBetako hauteskundeak: gutxiengoak. Susmopetik atera nahian: musulmanen jazarpena», in *Berria*, 2004-X-21

Bergareche, Borja (2004): «En torno a la presencia del Islam en España», in *Diario Vasco*, 2004-VI-12.

«Una mayoría de religiosos españoles califica el Islam de “fanático” y “machista”», in *ABC*, 2001-X-6.

«Los españoles ven a los países musulmanes violentos, autoritarios, intolerantes y groseros. El 74% cree que hay un “choque de civilizaciones” entre Occidente y el mundo islámico», in *El Mundo*, 2006-IV-19.

tearekiko mendekotasuna esan nahi du Erlijioaren Historiako (Díaz 1997, 519; Filoramo 2000, 519), eta Gizarte Zientzietako (López Alonso 2001, 375; Maíllo 1996, 115; Martín Muñoz 1998) aditu gehienen aburuz.

Gure lanean ez dugu islama bere erlijio adiera soilean hartuko, baizik eta zibilizatorioan. Izan ere, egile ugari dioen bezala, islamaren kasuan beste batzuetan baino lotuago agertzen dira erlijioaren bizitza eta ezaugarri kultural, sozial eta politikoak, bizitza publikoarekin oro har, nahiz eta molde eta ezaugarri desberdinak hartu mundu zabalean. Esan bezala, kaleko hiztegi ez espezializatu ohikoenetan adiera-bikoiztasuna agertzen da, esaterako Harluxet Hiztegi entziklopedikoan, Interneten:

(arab.zko hitza) iz. 1. Musulmanen erlijioa. 2. Musulmanen zibilizazioa, kultura; islamaren erlijioa nagusi den herrien multzoa.

Ñabardurekin bada ere, aditu askok azpimarratzen dute nekeza dela islama publikotasunerako joera hori kontuan hartu gabe ulertzea, eta horrek beste erlijio batzuekiko desberdintasun handienetakoa markatzen duela. Islamaren jaiotzak giza-antolamendu berri bat sorrarazi zuen (Martín Muñoz & Moure 2006, 23). Izan ere, beste erlijio batzuek ez bezala, islamak ez ditu bereizten bizitza-esparru pribatua eta publikoa; existentziaren eremu oro erlijioaren praktikan murgilduta behar duela kontsideratzen du (Stoddard & Cuthell & Sullivan 1981, 19-20). Ikerlari musulman garrantzitsuenak ere aburu berekoak dira, islamaren baitan ez dela bereizketarik erlijiosoaren eta sekularraren artean, sakratuaren eta profanoaren artean, ez behintzat kristauen artean bezain beste (Djaït 1990, 160-170, 237-243), ezta erlijio eta sekularitasun kontzeptuak bereiztera jotzen duten mendebaldeko pentsamenduaz elikatutako pertsonen artean (Hossein Nasr 1985, 17). Hona sintesi gisa hartu dugun iritzia:

Islama erlijioa da eta, aldi berean, baita erlijio horren bidez errebelatutako printzipioetan oinarritzen diren zibilizazioa eta antolamendu soziala [...].

Bestalde, musulman tradizioa ez da mugatzen Profeta santuaren mezuaren bidez jaso mezu [...]. Islamak barne hartzen ditu, sen horrez gain, baita bere ibilbidea espazioan eta denboran zehar, bere talentuari esker bereganatu duena, aldatzeko eta sintetizatzeke gaitasunak lagun. Hortaz, ez dira soilik islamiar soilik Koran sakratua eta *Hadith*-a; islamiar dira baita arte islamiarraren forma sakratuak, filosofia- eta zientzia-eskolak, baita erakunde sozial eta politikoak [...] (Hossein Nasr 1985, 9).

Datu hau ere garrantzia handikoa da: islama, fede eta zibilizazio izateaz gain, komunitate jakin bat ere bada, *umma* alegia (Estruch 2006, 189), munduko musulman guztiek osatzen duten komunitatea. Ez dira nahastu behar islam eta *umma* terminoak. Horrek azaltzen du musulmanentzat sarritan autoritate-emaile handiena islama izatea, islama fededunen

artean elkartasun eta anaitasunezko lotura sendoak sortu dituen komunitate gisa ulertuta, (Lewis 2004, 15), zenbait kasutan beste interes batzuen gainean gailentzen diren loturak (Sánchez Nogales 2004, 182). Beraz, islamak, zibilizazio-definizio gisan, gizartea antolatzeako indarra handia du.

Halliday-k dioenez, estereotipoei buruz ari delarik, nahikoa arrunta da mendebaldeko kulturaren musulman gehienek euren gizarteak erlijiotik eratorritako programa politiko batez jantzi nahi dituztela pentsatzea (Halliday 2005, 153). Eztabaida hori (kalean ere badu isla) ikerlan honetan bazter utziko dugun esparru batera eramango gintuzke, islamaren ikuspegi politikora (Lewis 2004, 15; Étienne 2005, 55-81).

Halaber, inportantea da *islamiar* eta *arabiar* terminoak bereiztea. Herrialde arabiarrek zeintzuk diren eta zerk bereizten dituen zehaztuko dugu, Segura eta beste batzuei jarraituz: herrialde arabiarrek Arabiar Penintsulakoak —erlijioaren sorrera— eta ondorengo lehen mendeko hedapen azkarraren baitan hartutako lurraldeak dira, hauek (Segura 2002, 20-22; Newby 2004, 214; Mañllo 1996, 143):

- Magreb, etimologikoki Eguzkiaren sarrera lekua, Mendebaldea;
- Masriq, etimologikoki Eguzkiaren irtete lekua, Ekialdea, Arabiar penintsula eta Ekialde Hurbilko eskualdea; eta
- Nilo ibaiaren haranekoak.

Hogeita bi herrialde dira: Atlantiar eta Indiko Ozeanoen artean Mendebaldetik Ekialdera; eta Mediterranearen Itsasoa eta Saharako basamortua Iparretik Hegora.

Beraz, herrialde batzuk islamiartzat jotzen ditugu, nahiz eta ez arabiarizat: Indonesia, Senegal... Hala ere, nahasiagoa da herrialde islamiarren definizioa, hots, zeren arabera definitzen diren:

- Konfesionaltasunaren arabera? Multzo horretan estatu batzuk ofizialki konfesionalak dira (egun Iran, Saudi Arabia) eta beste batzuk laikoak (egun Tunisia eta Turkia, nahiz eta Islamaren garrantzi soziala ukazina den). Gainera, estatuaren izaera aldarokorra da, gorabehera politiko eta soziologikoen arabera.
- Fededunen batez bestekoaren arabera? Turkiaren kasuan portzentaia handia da (egun, musulmanak % 90etik gora dira), baina Estatu ofizialki laikoa da.
- Balizko homogeneotasun kultural baten arabera? Baina, nahiz eta Europak sarritan ikuspegi etnozentrismo (Martín Muñoz 2006, 17) eta esentzialista (Étienne 2005, 24) batetik begiratzen beste kulturak, ez da erraz onartzekoa halako zabalera geografikoan aniztasuna hutsa edo eskasa izatea. Sarritan Islam eta arabiar kultura lotu egin dira sinonimo gisa, baina aurkako adibide ugari dago: arabiar kulturako partaide ez dira musulman asko daude Txinan, Indonesian, Turkian, Sahara azpiko Afrikan, Sobiet Batasuna ohiko zenbait erre-

publiketan... baita Magreben bihotzean ere, bereberrak kasu. Ba-
dira arabiar ez musulmanak ere esparru geografiko zabal horretan
(Étienne 2005, 19).

Arazoak arazo, guk definizio hori jarraituko dugu, islama bai erlijio
gisa, baina baita kultur molde gisa ulertuz, batez ere arrazoi epistemolo-
gikoengatik: Gizarte Zientzien Didaktikako saileko irakasle izanik, gure
ikuspegia soziala da, Ingurunearen Ezagutzaren ezagutza-arloak kezkatzen
gaitu, eta hor, bizitza sozialean, beste gizatalde batzuen eta musulmanen
artean aldeak daude bizitza publikoaren antolaketan.

2.2. Zergatik testuliburuak?

Ezer baino lehen, aztertu dezagun zer den testuliburu. Definizio ugari
eman dira hezkuntza-jarduerarako tresna eta eragile hori ezaugarritzeko,
eta gehienak zatikakoak, partzialak. Abiapuntu gisa, Harluxetetik kaleko
adiera zabal bat hartu dugu, hainbat egileren ekarpenekin osatu eta gure la-
nerako erabilgarri bat lortzeko:

iz. Irakaskuntzan, asignatura jakin bat lantzeko edo prestatzeko oina-
rri gisa erabiltzen den liburua.

Berez doa asmo pedagogikodun tresna teknologikoa dela (Martínez
Bonafé 2002, 36), idatzizko eta ikonoen bidezko kodeak uztartzen dituen
teknologia bimedia erabiltzen duela, (Bilbao 2003, 92), nahiz eta batzue-
tan, eta bereziki jakintza-arlo jakin batzuetan teknologia berriak ere txer-
tatzen dituzten, hizkuntzetan bereziki. Bilbaok dioen bezala, bada pole-
mika egileen artean bi euskarri mota horien artean dauden harreman
hierarkikoei buruz: batzuen ustetan testuak markatzen du bidea, eta iko-
noak lagundu baino ez, funtzio ilustratzaile edo dekoratiboa. Beste batzuen
aburuz ikonoek ere funtzio informatiboa betetzen dute beti, nahiz batzue-
tan deskontestualizatuta agertu daitezkeen kode biak (lotura gabe, orrialde
desberdinetan), nahiz egilearen asmoetan ez izan praktikan bai izango
duen funtzio hori. Batzuetan ikonoak testuak baino informazio gehiago
edo esanguratsuagoa ematen duela uste dugu, eta, horren adierazle, gure
laginean nahikoa kopuru handi hartzen duten mapa historikoak: kode iko-
nikoa ezagutuz gero, aldibereko informazioa ematen du, eta testuak baino
modu integratuagoan.

Azpimarratzekoa da bere izaera inprimatua, irakurtzeko egina da, bai
kode idatzian, baita ikonikoan ere, eta horrek ezaugarri jakin batzuk ditu: ez
du eskatzen ikus-entzunezko teknologien bezain besteko azpiegitura eko-
nomiko eta ezagutza teknikorik (Argibay eta al. 1991, 72); ikusmen alfabe-
tikoari lotzen zaio, ezagutzak osatzeko estrategia lineala eta sekuentziala da,

koadro baten aurrean gertatzen den aldibereko atzematea baino adimen eboluzionatuago baten isla, eta (Simone 2000, 31-36); ahozko eta ikus-entzuzko teknologien aurrean, finkatu eta uniformizatu egiten du edukia.

Laburbiduz, hona testuliburuaren definizioa (Argibay 1991, 70):

- 1) baliabidea da, eta tekniko-hezigarria;
- 2) euskarriaren aldetik, material inprimatua da;
- 3) egituraz, aurrerabide sistematikoan oinarritzen da;
- 4) erabilpena ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetarako da;
- 5) errealitate zientifiko, kulturala, soziala jasotzen du;
- 6) onarpen legala dauka.

Horren ondoren, teknologia hau hautatzearen arrazoiak azalduko ditugu, zein ote den bere garrantzia. Bi argudio bide jarraituko ditugu: kuantitatiboa eta kualitatiboa.

Lehen argudioa kuantitatiboa da, testuliburuaz azken mendeetan Mendebaldeko herrialdeetan Hezkuntza-erakundeek gehien erabilitako tresna, teknologia, baita (Area 1994, 85; Argibay et al. 1991, 69; Johnsen 1996, 29; Martínez Bonafé 2002, 11; Richaudeau 1981, 47). Beste baliabide batzuk sortu eta indarra galdu duten bitartean, jarraikortasun handia erakutsi duen irakaskuntza-bitartekoa da (López Rodríguez 1986, 10), eta baita eguneroko bizitzako objektu arrunta. Hezkuntza-jardueraren alderdi sistematikoenarekin lotuta agertzen da batez ere (Fernández Reiris 2005, 23).

Eleuteria Quintanilla ikertaldeak eskola-denboran hartzen duen protagonismoa azpimarratzen du (Grupo Eleuteria Quintanilla 1998, 15), are gehiago zenbat eta aurrerago egin Hezkuntza-sistemako etapetan. Horren adibide, Apple-i hartutako adibidea dakar: AEBetan, Bigarren Hezkuntzako ikasleek ikasgelan ematen duten denboraren % 75 eta etxeko-lanetako % 90 testuliburuaren ingurukoa da (Apple 1989, 91). Datu berriagoetan, Espainiar estatuko irakasleen artean ere, % 75ak dio astean zehar egindako lan-denboratik erdia baino gehiago testuliburuarekin ematen duela; horien artean % 89k testuliburuaren balorazio positiboa egiten du (Burguera 2006, Valls 2007, 499tik hartuta).

Hori horrela da Hezkuntza-jarduera demokratizazio bidean jarri zenez: testuliburuaren jatorria urrunagokoa izanik ere, Ilustrazioaren garaian bilatu behar da bere esangura modernoaren erreferentzia historikoa (Rodríguez Neira 1995, 51-57). Choppin-ek jasotako testigantza baten arabera, 1791ean kokatzen da Frantziar testuliburuaren beharraz lehen aldiz hitzaldi ofizial batetan hitz egin zen unea, Talleyrand-en hitzetan, Frantziako iraultza gertatu eta bi urtera Batzar Eratzailearen aurrean ari zelarik:

Munduko egitateak jende guztiaren eskuetan jartzeko, eta egitateok ikasteko ahalegin hutsalak saihesteko, oinarritzko liburu, argi, zehatz, metodiko eta erruz zabalduko direnak prestatu beharra daukagu nahitaez (Choppin 2000b, 108).

Bigarren argudioa kualitatiboa da, izaera sozialari lotua. Izan ere, testuliburuak garaian garaiko eta tokian tokiko gizartearen jakintzaren kondentsazio gisa ulertzen dituzte zenbait egilek. Beraz, giza-erakuntza diren aldetik, ulertezinak lirateke baldintza mugatzaile historiko, sozial, ekonomiko eta geografikoak kontuan hartu gabe (Choppin 2000a, 18). Curriculum bera osotasun egonkor eta aseptikoa baino izaera gorabeheratsu, aldakor eta zatikatua duen elementua denez (Goodson 1995, 183), testuliburuak ikuspuntu sozial eta politiko jakin batzuei erantzuten die, haien eta beraien baloreen eta ikusmolde ideologikoen arabera osatzen dira (Bilbao & Ezkurdia & Perez Urraza 2006, 90; Blanco 2001, 50-56; Choppin 2000b, 109; Fernández Reiris 2005, 26-32; Martínez Bonafé 2001, 22; Muñoz Jordán 2004; Perez Urraza 2003, 176-177), eta hautatutako edukiez gain, funtzio sozialak ere aldatu egiten dira gizarte-eredu nagusia edota bostere ideologiko-politikoa aldatu ahala (Selander 1995, 133). Testuliburuek finkatu eta trinkotu egiten dute erdigune hegemonikoaren gailurretik ikuskatu eta legalki onetsitako ezagutza (Moreno 1986, 69). Ikuspegi kritikar batetik, oso elementu interesgarria ekarri nahi dugu, besteak beste sarreran jasotako Innerarityren iritziarekin harremanetan jartzea eskatzen duena: testuliburuek bizitzaren esangura ideologizatua daramate eurekin batera, baina gaur egungo subjektibitatearen eraikuntza sozialaren testuingurua kontuan hartuta, ez dute asko laguntzen (Martínez Bonafé 2001, 22).

Martínez Bonafék eta beste batzuk (Área 1994, 93; Muñoz Jordán 2004, 191-194) garrantzia ematen diote testuliburuaren izaeran lehen begiratuan nahikoa aldameneko eman lezakeen baina ideologikoarekin lotura estua duena beste ezaugarri bati: testuliburu kontsumo-objektua ere bada.

Testuliburuaren funtzio ideologikoa dela eta —eta Le Goff historialariaren aburua hartuta— Blancok dimentsio hori Gizarte Zientzietako liburutik beste edozeinetan baino askoz nabarmenago agertzen dela dio, nahiz eta ez soilik horietan³ (Blanco 1994, 272).

Fernández Reirisek aipatutako sistematikotasunaren harira, eta Martínez Bonaféren hitzetan, «ikasle saldo ikaragarri handientzat, ezagutza-iturri nagusia testuliburu da, curriculumeko edukien eramaile gisa» (Martínez Bonafé 2002, 37), non zientzialariek osatu eta hautatu, Ministerioak agindu, eta eskolan ikasi beharreko ezagutzak zehazten eta aurkezten diren, kode jakin batzuen arabera. Testuliburu zehaztapen kurrikulurra «itzultzeko» tresnatzat hartzen da —sarritan ia bakartzat—, erabaki politiko eta pedagogikoen eta ikasleen nahitaezko bitartekotzat (Blanco 1994, 265).

³ Oso datu esanguratsua da orain oso gutxi, 2006ko urrian, erlijio islamiarrari begira propio prestatutako lehen testuliburu kaleratu izatea, Estatuko Komunitate Islamiarren Batasunak (UCIDE) SM argitaletxeari eskatuta: *Enseñanza religiosa islámica. El primer libro de texto de religión islámica para todos los centros españoles de educación primaria*.

Iturria: http://ucide.org/es/index.php?option=com_content&task=blogcategory&id=16&Itemid=39

Honengatik guztiagatik, bereziki interesatzen zaigun gaia da kultur hautaketarena. Testuliburuetako edukiak hautaketa baten ondorio dira, *ezkutuko curriculum*a tarteko eduki batzuk alboratu egiten dira era kontziente edo inkontzientean, (Perez Urraza 2004, 107; Torres 1991); beraz, partziala da baita beren diskurtsoa, egilearen hautuaren arabera (Bilbao 2003, 94).

«Itzulpen» pedagogikoaren estrategien artean oso ohiko da edukien traktera ez konfliktiboa (Martínez Bonafé 2002, 25), ahal dela gai edo traktera gatazkatsuak alboratuz. Estrategia horren bidez testuak kontrol eta segurtasun emaile bihurtzen dira. Ez da soilik zer hautatu den gaineko auzia, baita nola tratatzen den gainekoa.

Azken hamarkadetan asko ikertu dira testuliburuak, eta ikuspuntu desberdinetatik abiatuta. Johnsenek hiru ikerbide bereizten ditu (Johnsen 1996, 29), eta gure ikerlanaren helburua, inon izatekotan, lehen multzoan kokatuko gure:

1. Ideologikoa: testuliburuaren bitartez zabaldutako mezu ideologikoen gainekoa.
2. Erabilpenarena: ikasle-irakasleek egiten duten testuen erabilpenari buruzkoa.
3. Testuliburuaren bizi-zikloarena: sortzetik erabiltzailearengana iritsi bitartekoa.

2.3. Zergatik ikonoak?

Argudio kualitatiboen aurretiko arrazoi kuantitatibo bat: Richaudeau 1981an zioen ordurako azken hiru hamarkadetan testuliburuaren eboluzioan izandako aldaketa nabarmenena ilustrazioen eta kolorearen erabilera intentsiboa izan dela. Testu berriak irakurle gazteen interesa pizteko eta beren zeregin didaktikoa betetzeko erakargarriago eta eraginkorragoak ematen zutela zion ia 30 urte idatzitako testuan (Richaudeau 1981, 157), eta hor urrats kualitatiboa sumatzen dugu. Horixe bera frogatzen da Euskal Herriko testuliburuaren inguruan (Bilbao & Ezkurdia & Perez Urraza 2006, 53, 61-68): kopuruaren gorakada, ikonoen tamaina gero eta handiagoa, eta maketazio sistema gero eta konplexuagoak.

Zer da ikonoa? Gaztelazko *imagen* latineko *imago*tik eratortzen da, eta haxe *imitari* aditzetik, antzeratu. Ikonoren kasuan ere antzeko adiera ematen da, nahiz eta, DRAEk garrantzia ematen dion objektu ordezkatuarekin antzekotasun harremana duen ikurrarenari, errealtateko objektua abstraktu bihurtu eta adierazteko gaitasuna azpimarratuz. Moles semiologo frantsesak ikonizitatearen eskala osatu zuen 1970 urte inguruan, errepresentatutako objektuarekiko fidegarritasunaren arabera neurtua, hurrenkera zuzenean: ikonizitatea abstrakzioaren aurkako magnitude gisa ulertuta, ikonizitate-maila altuagoa izango du ikono batek zenbat eta gertuago egon irudikatutako objektutik. Ikonizitate ideala erabateko identifikazioa litzateke, objektua bera.

Molesek berak ikonoaren beste definizio bat ematen du, (Obiols 2004, 23) ikonoaren barne-ezaugarri batzuetara hurbiltzen gaituena: «ikonoa

ikusmeneko komunikazioaren euskarri bat da, denboran zehar irauteko gaitasuna duen ingurune optikoaren (unibertso pertzeptibo baten) zatiki bat materializatzen duena». Hau da materia ikusgarri bihurtzen du esperientzia bizitua, euskarri material bati esker. Gainera, produktu material horrek indar iradokitzaile handia dauka; Richaudeauren aburuz, oroimen mota guztien artean, ikusmenezkoa da eraginkorra (Richaudeau 1981, 138).

Ikonoa, berez presente ez dagoen errealitate jakin baten errepresentazioa⁴ da (Fueyo 2002; 83), baina errealitate hori identifikatu egiten dugu jatorrizko modeloaren atributu jakin batzuk gordetzen dituelako. Horren kariaz, ikonoek errealitatea (bir)eraikitzen dut eta, nolabait «irudimenezko» bihurtzen dute.

Nolakoak dira errealitatearen errepresentazio horiek? Richaudeauk hiru mota nagusi bereizten ditu sailkapen pragmatiko batean, ikonoen izaeraren arabera, eta Molesen ikonizitateari buruzko eskemarekin harreman estua gordez (Richaudeau 1981, 163). Alabaina, Valverdek (1989) xehetasun handiagoz aplikatzen du ikonizitate kontzeptua; parez pare jarri ditugu sailkapen biak:

1. taula
**Errealitatearen errepresentazio ikonikoak,
 Richaudeau eta Valverderen arabera**

Richaudeauren arabera	Valverderen arabera
– Argazkiak, errealitatearekiko hurbilenak, bertatik hartuak, nahiz eta manipuluak izan daitezkeen bitarteko teknikoekin, nahiz eta. testuliburuetan xede nagusia didaktikoa den.	– Irudiak (argazkiak, errepresentazio piktorikoak, marrazkiak).
– Marrazki asmo errealistadunak, errealitatearen interpretazioa, indar afektibo handikoak.	
– Marrazki asmo eskematizatzaileadunak, jasotako errealitatea abstraitzen dituzte, datu bihurtu, hala nola grafikoetan, diagrametan, kontzeptuzko mapetan...	
	– Krokisak, diagramak, grafikoak: adierazpen geometrikoak, zenbakizko harreman estatiko eta dinamikoak buruz.
	– Mapak, informazio emaileak, adierazpen-sistema jakin baten arabera

⁴ Itzulpen oharra. Gaztelarazko jatorrizkoak itzuli ezinako hitz jokoa egiten du: *(re)presentación* terminoa erabiltzen du, zentzu bikoitzarekin.

Gure laginean Richaudeauk aipatutako hiru motak agertzen dira, baina baita mapak, bereziki mapa historikoak —Gizarte Zientzietako testuetan ugari dira—, ikertutako espazioa eskematizatu eta diakritikoki atxikitzeko tresna grafikoak (Ezkurdia, 2006, 528). Izaera hibridodun tresna, mapa errealitatearen eskematizazioa, eta aldi berean errealitate objektiboarekiko atxikimendu handikoa baita, subjektibotasunetatik ihesi. Idatzia eta ikonikoaren arteko harreman horretan, lengoia grafikoak badu zenbait informazio mota argiago emateko gaitasuna. Adibide gisa, informazioa konkretatzeko eta harreman logikoetan emateko mapen gaitasuna, nahiz eta beste ikono mota batzuk baino gehiago sintaxi jakin bat ezagutzea eskatzen duten. Prendesek (1997) ikonoaren ahalmen adierazle hori inon baino gehiago Ingurunearen Ezagutzaren ezagutza-esparruan erabiltzen dela dio, Gizarte Zientzietan oro har.

Bestalde, ikusmenezko euskarriek beti aurkezten dituzte bi irakurketa maila: agerikoa eta estalia, ezkutukoa (Acaso eta Nuere 2005, 210), eta batez bigarren horretan ematen da curriculum ezkutu bisuala, ikonoen azterketan horren inportantea den alderdi denotatibo eta konnotatiboaren artean, hau da, besterik gabe «ikusten» den irakurketa objektiboaren eta irakurketa subjektiboaren artekoa (Grupo Eleuterio Quintanilla: Plataforma Asturiana de Educación Crítica, 1998, 113. orr.). Sarri askotan, bi maila horien arteko jauzia egin ematen dute testu idatziek: konnotatua, interpretatua ematen da gehienetan dokumentu idatzia, baina ez ikonoa. Irudian testu idatzian baino nabarmenago aztertu daitezke denotazio eta konnotazioa, testu idatziaren diskurtsoa arbitrarioagoa baita (Fueyo 2002, 84), estandarizatuagoa. Eta horrekin batera, interpretatuagoa, agerikoagoa; «ikasleek ikasi beharreko» denotatuaren, eta ikonoen interpretazioaren bidez «ikasleek ikas lezaketen» konnotazioaren artean kontraesana aipatzen du Fueyok.

Historiaren eta GGZZen esparruan, gure ikerlanarenean alegia, 1900-1990 denbora tartean, ikonoak *ilustrazio* gisa kontsideratzen *dokumentu* kontsideratzera jauzi kontzeptuala egin dute (Valls 1995, 105). Kontuz!, egileak berak azaltzen du muturrera eramanez nahi izan duela bi terminoen adiera, baina ideia horren atzean dagoen intentzionalitatea oso iradokitzailea da. Izaera apaingarria gauditu eta dokumentu izateko, Vallsek ikonoari testuinguru jakin eta kodetu batean zehaztasunez kokatua izatea eta informazio esanguratsuaz jantzia eskatzen dio.

3. IKERKETAREN DISEINUA

3.1. Lagina

Ikerketa honetan testuliburuetakiko ikonografia azterketa egin dugu. DBHko 1. eta 2. ikasturteetan, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historiako ezagutza-arloan zentratuta.

3.2. Testuliburuaren ezaugarriak

Arakatu dugun lagina hamar testuliburuz osatzen da, horietatik lau —Anaya ez, besteak— euskarazko irakaskuntzan hautatuenetakoak (Erriondo, Garagorri, Isasi 1998, 66). Horietatik bi bertokoak dira, Elkar eta Erein; beste bik Estatu-esparruan lan egiten dute: Santillana eta Anaya. Edelvives estatala-rekin batera lan egiten duen Ibaizabal bertokoa ere aztertuko dugu.

Denbora-epea azken hamarkadan mugatu dugu, 1996tik hona datorrena.

LOGSEren agindupean osatutakoak dira denak.

DBHren 1. eta 2. maila aukeratu dugu, horietan hasten baitira guk planteatzen dugun edukia lantzen, dela ikuspegi sozialetik, zein historikotik.

Aztertutako ezagutza-arloei dagokienean, jakin arren beste batzuk ere garrantzizkoak direla eta gure intereseko edukiak ere ager daitezkeela berrietan (Literatura, Filosofia), oraingo honetan Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia hartu dugu aztergai, horietan agertzen direlako gehienbat gure ardurako edukiak. Gu geu Gizarte Zientzien Didaktikako irakasle gara

Testuliburu bakoitzari erreferentzia bat eman diogu, 1 eta 2 zenbakiek ikasturtea adierazten dute. Hemendik aurrera horiek erabiliko dira testuliburuak izendatzeko.

2. taula
Testuliburuaren lagina

Erreferentzia	Izenburua	Argitaletxea
Elkar-1	Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia. DBH 1	Elkar
Elkar-2	Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia. DBH 2	Elkarlanean
Anaya-1	Geografia eta Historia: Gizarte-Zientziak 1. Bigarren Hezkuntza. Nafarroa	Anaya
Anaya-2	Geografia eta Historia: Gizarte-Zientziak 2. Bigarren Hezkuntza. Nafarroa	Anaya
Erein-1	Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia. DBH 1	Erein
Erein-2	Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia. DBH 2	Erein
Ibaizabal-1	Geografia e Historia. Ciencias Sociales. 1.º ESO	Ibaizabal
Ibaizabal-2	Geografia eta Historia. Gizarte Zientziak. DBH 2	Ibaizabal
Zubia-1	Geografia eta Historia, Euskal Herria. 1. Maila	Zubia-Santillana
Zubia-2	Geografia eta Historia, Euskal Herria. 1. Maila	Zubia-Santillana

3.3. Ikonografiaren ezaugarriak

Goiago azaldu den moduan, ikonografiako edukiak dira lan honetan aztertuko direnak. Hamar testuliburu horietan 196 ikono dira islamarekin lotura dutenak, ez soilik erlijio-ikuspegian, baita kultur-molde, zibilizazio ikuspegian ere, tartean baita ibilbide historikoa.

Hainbat ikono mota agertzen da testuotan. Guk jarraian azaltzen den sailkapena egin dugu, kategoria nagusienak direlakoan; alabaina, kontuan hartzekoa da den-denak direla printzipioz argazki, liburugintzaren prozesu tekniko modernoetan txertatu ahal izateko.

Honako azpikategoriak definitu ditugu:

Argazkia	Fotografiaren bidez lortutako ikonoa.
Marraskia	Arkatzez, lumaz, edo arrastoa uzteko gai den bestelako edozein tresnaz, asmatu edota kopiatutako zerbaiten ikonoa.
Mapa	Edozein aldagaik lurrazalean edo honen zati batean duen banaketa irudikatzen duen adierazpide grafikoa. Aldagai horiek mota askotakoak izaten dira, bereziki geografikoak, geologikoak eta geopolitikoak.
Planoa	Eraikin, makina, etab.en xehetasunen irudikapen grafikoa; hiri, herri, auzo baten irudikapen grafikoa.
Grafikoa	Datu jakin batzuen arteko erlazioak irudikatzen dituen ikonoa, sarritan abstrakzio gisa.

Jarraian ikono mota horien maiztasuna aztertuko dugu, testuliburuaren arabera:

3. taula
Ikono moten maiztasuna, testuliburuaren arabera

Erreferentzia	Argazkia	Mapa	Marraskia	Planoa	Grafikoa	GUZTIRA	Ehunekoak GUZTIRA
Elkar-1						0	—
Elkar-2	27	11	3			41	% 21
Anaya-1						0	—
Anaya-2	19	11	2	3		35	% 18
Erein-1						0	—
Erein-2	4	3	4			11	% 6
Ibaizabal-1						0	—
Ibaizabal-2	28	8				36	% 18
Zubia-1	26	4		2		32	% 16
Zubia-2	28	10	1	1	1	41	% 21
GUZTIRA	132	47	10	6	1	196	% 100
Ehunekoak GUZTIRA	% 67	% 24	% 5	% 3	% 1		

Taulak zenbait datu erakusten digu: Hasteko, ikono-mota bat gailentzen da nabarmen, argazkia, laginaren bi herenak pasa hartzen baititu: % 67. Oso tarte luzera mapak jarraitzen dio, ez da haren erdira ere iristen.

Beste hiru ikono moten baloreak ia testimonialak dira, hauek bai elkarrengandik hurbil. Marrazkiei buruz, guztiak bi argialetxetako liburuetan baino agertzen dira soilik: Erein-2 erreferentziak marrazki guztien erdia ematen du -eta egiaztatzen da hauxe dela, baita, aurkezpen grafiko garbienekoa, orrialdeetan ikono-kopuru gutxien erabiltzen duenetakoa, orrialdearen hedaduraren ehuneko txikien hartzen duenetakoa.

Maiztasun urriko beste bi ikono motek, planoek eta grafikoek, mapek bezala sintaxi sistematizatu, estandarizatuago bat ezagutzea eskatzen dute egoki interpretatzeko; grafikoen kasuan, baita nolabaiteko abstrakzioarako gaitasuna ere (Bilbao 2003, 96). Alde horretatik, harremanetan jarri nahi dugu DBHko testuliburuetan aurkitu duguna Unibertsitateko ikasle askoren gaitasuna grafikoak interpretatzeko eta. Gizarte Zientzietan garrantzia handiko tresna izanik, Irakasle Eskolako gure ikasle askok arazoak dituzte adin-piramideak, klimogramak, eskala hipsometrikoak, etab. egoki ulertzeko. Alabaina, gure laginean grafikok bakar bat agertzen da. Kontuz!, ez da esan nahi batere agertzen ez denik; izan ere, prozeduren lanketari eskainitako orrietan, argialetxe ia guztietan azaltzen da nola osatu edota irakurri grafikoak. Baina harrigarria da gero, edukietara grafikorik ez ekartzea, edo oso gutxi.

Salbuespen bakar batekin, DBHko 1. ikasturteko testuliburuetan ez da ikonorik batere. Salbuespena Zubia-1 da, eta bertan bost ikono motetik hiru agertzen dira, ez marrazkirik eta ez grafikorik. Testuliburuaren aurkibideei erreparatuta, argi ikusten da ez dela islamaren lanketarik DBHko 1. ikasturtean, ez bada Zubia-1en.

Taulan ikusten da baita DBHko 2. ikasturteko testuliburuaren artean ikono kopuru nahikoa antzekoa dagoela: goi-muturrean Elkar-2k eta Zubia-2k 41na ikono dituzte, eta azpikoan 32 Zubia-1ek. Halere, bada nabarmentzeko moduko salbuespena: Erein-2k 11 baino ez ditu, beste bost testuliburuaren batez bestekoaren erdia baino kopuru txikiagoa. Ereineko bi testuliburuaren artean lagineko ikono guztien % 6 hartzen dute soilik.

Aldiz, eta argialetxeen araberrako irakurketa eginez, bestaldeko muturrean Zubia-Santillana nabarmentzen da: bera da bakarra bi ikasturteetan ikonoak erabiltzen dituen, eta bien artean ikono guztien % 37 hartzen dute. Gainera, Zubia-2 da ikono mota guztiak erabiltzen dituen bakarra.

Azkenik, datu estatistiko gisa, aztertu dugu islamari eskainitako ikonoen batez bestekoa, ikono guztiekiko harremanetan. Horretarako islamari buruzko ikono gehien eta gutxien dituzten bi testuliburuak hartu ditugu; guztira dituzten ikono-kopuruak zenbatu, eta harreman matematikoa kalkulatu dugu:

4. taula
Islamari buruzko ikonoen eta ikono guztien arteko proportzioa

Erreferentzia	Islamari buruzko ikonoak	Ikonoak GUZTIRA	Batez bestekoa (Islama / Guztira)
Erein-2	11	350	31,8
Zubia-2	41	550	13,4

Ikusten denez, kopuru handiagoa duenak proportzio handiagoa ere badu: Zubia-2 testuliburuan 13,4na ikonotik bat islamari buruzkoa da. Aldiz, ikono gutxien dituen Erein-2 testuliburuan, 31,8tik behin ageri da islamari buruzko irudia. Zubia-2 erreferentziaren erdia baino txikiagoa da harremana, ez bakarrik ale kopuru absolutuan, baita proportzioan ere.

Horrekin batera, izaerazko aldeak ere nabari ditugu liburu bien artean. Oro har, Zubiarenak tamaina txikiagokoak dira, eta askoz gehiago jotzen dute argazkira; gainera, bera da baita baliabide ikonikoen aniztasun handiena darabilena. Ereinek dezente nabarmenago jotzen du marrazkira, nahiz eta horien arteko 3, eta baita bi mapa, oso-oso xumeak diren tamainaz eta adierazpen-gaitasunez.

3.4. Ikerlanaren prozedura: Ikonoak, edukiak, kategoriak eta azpikategoriak


Lagina 196 ikonoz osatu dugu. Horietako bakoitzean hainbat eduki aurkitu ditugu, eta 9 kategoriatan eta horietako bakoitzaren azpikategorietan sailkatu ditugu.

Bardin-i jarraituz (1996, 91, Muñoz Jordánetik hartuta), kategorizatzea testuliburuek eskaintzen dizkiguten edukiak ordenatzean datza, jasotako elementuak analizatu, eta elkarren arteko harremanak bilatu ahal izateko. Edukien analisisa egingo dugu, behin kategoria eta azpikategorietan maiztasunaren arabera sailkatu ondoren.

Kategoria ia guztietan eduki bat baino gehiago aurkitu dugu ikono bakoitzeko. Ikono batzuek eduki gutxi emango dizkigute, kategoria gutxitan agertuko dira; beste batzuek askotan. Hobeto ikusiko da hori azpiko irudien bitarteko adibidearekin. Ikono bi hauek Elkar-2 liburutik hartuak daude:

- 1) irudiak 5 eduki eman dizkigu, horietako lau Generoa kategorian (esaten digu gizonezkoa(k) d(ir)ela, taldeka, pertsonaia ospeduna eta esparru publikoan), bosgarrena Kultura kategorian.

- 2) irudiak, aldiz, Habitata, Erlijioa, Generoa, Kronologia historikoa, Geografikoa eta Arkitektura kategoriatan ematen du informaziorik, guztira 9 eduki.



1) irudia



2) irudia

Guztira 913 eduki aurkitu ditugu. Edukiak modu desberdinez banatzen dira testuliburuko eta ikonoko, 5. taulan ikus daitekeen moduan.

5. taula Edukien batez bestekoa, ikono bakoitzeko


	Elkar-2	Anaya-2	Erein-2	Ibaizabal-2	Zubia-1	Zubia-2	GUZTIRA
Ikonoak	41	35	11	36	32	41	196
Edukiak	208	156	67	158	99	225	913
Eduki / Ikonoko erlazioa (batez beste)	6,1	5,5	7,1	5,4	4,1	6,5	5,78

Elkar-2 eta Zubia-2 liburuek dute ikono kopururik altuena, hots, 41, eta eduki kopuru handiena, 208 eta 225 hurrenez hurren; gutxien Erein-2 liburua du. Taulako azken ilarak ikono bakoitzeko edukien batez bestekoa adierazten du. Ohartzekoa da Erein-2, islamarekin lotutako ikono eta eduki gutxien duen testuliburua izanda ere, bera dela baita aberatsena, ikono bakoitzeko eduki gehien duena batez beste.

Gorago esan bezala, guk bederatziko kategorian bereizi ditugu gure intereseko edukiak biltzeko, 2. grafikoan adierazten direnak. Kategorian horiek

Gizarte Zientzien Didaktikako testuliburuetakoko eduki kognitiboak antolatzeko ohikoenak. Denborazko eta espaziozkoak, gainera, Gizarte esperienziaren ardatz egituratzailetzat hartzen dira.

Hurrengo grafikoan kategorია bakoitzak biltzen dituen eduki-kopurua erakusten du, maiztasuna agertuz.



2. grafikoa
Kategoria bakoitzeko eduki kopurua

Bederatzi kategoriak bi multzotan bana ditzakegu, eduki-kopuruaren arabera. Bost kategoriak 100etik gora biltzen dituzte; beste lauek 50etik behera. Guk hurrenkera horretan bertan aurkeztuko ditugu hemen, eta aztertuko gero.

Espazioa eta denbora Giza-esperienziaren ardatz egituratzaileak dira; EHUko eta beste hainbat unibertsitatetako Irakasle Eskoletan Gizarte Zientzien Didaktikaren edukien banaketa: *Gizarte Zientzien Didaktika I* ikasgaia espazioaren didaktika gisa ulertzen da, eta tartean espazio geografikoa, *Gizarte Zientzien Didaktika II* ikasgaia denboraren didaktika gisa ulertzen da, tartean denbora historikoa. Aipagarria da Historiako bi kategoría eta Geografiakoarena eduki gehien biltzen dituztenak direla.

Genero kategoría amaierarako utzi dugu, edukien kopuruaren arabera nagusienetakoa den arren. Genero-irakurketa zeharkako irakurketa delakoan gaude, gure ustez egin beharrekoa, eta propio heldu nahi izan diogu. Gainera, testuliburuetakoko ikonoetan pertsonen agerpen kuantitatiboki handia da eta kualitatiboki esanguratsua.

Jarraian, kategoría bakoitzak biltzen dituen azpikategoriak mugatu ditugu.

- Kronologia historikoa. Hamasei azpikategoria biltzen ditu: hamabost VII. eta XX. mendeen artekoak, eta beste bat zehaztugabea.
- Subjektu historikoa: Historiaren ardatz egituratzaile nagusienetakoa denbora bada, denbora historikoa, kategoría honek ibilbide historikoaren subjektua lantzen du: gizakion jarduera historikoaren

emaitza. Bederatzi dira guztira: zortzi une historiko jakin (Islamaren hedapena, Al-Andalus, Errekonkista...) eta beste bat: gatazka eta gerra.

- Geografia: hamabi azpikategoria daude bertan, eskualde geo-historiko eta kulturalak bereziaz.
- Arkitektura: hiru azpikategoria hartzen ditu kontuan, arkitektura horren funtzio militarra, erlijiosoa edota zibila den arabera.
- Habitata: bi azpikategoria biltzen ditu, nekazal edo hiritar habitata erakusten dutena.
- Erlijioa: Arkitekturaren adierazpenak eta islamaren ibilbide historikoa alboratuta, erlijioaren printzipioak eta propio bizitza erlijiosoa eta federeko harremana jasotzen ditu.
- Ekonomia: jarduera ekonomikoak, ohiko hiru sektoreen banaketaren arabera. Horiei laugarren azpikategoria gehitu diegu — zehazgabe — jarduera ekonomikoa agertu bai baina zein den antzemateko gaitza den kasuetarako.
- Kultura: kultur adierazpen oro biltzen du.
- Generoa: hamabi azpikategoria biltzen dira, lau multzotan banatuta: ikonoetan gizezko edo emakumeak agertzen diren; esparru publiko edota pribatueta; taldeka edo bakarka (pertsonea ospetsuak eta anonimoak); eta islamaren eta emakumeen trataeraren inguruko gai gatazkatsu batzuk, hala nola, poligamia, beloa, harrena...

4. DATUEN ANALISIA

Atal honetan kategoria bakoitzean bildutako edukiak analizatuko ditugu, bakoitzaren eduki-kopuruaren hurrenkera berean, generoaren salbuespenarekin.

4.1. Kronologia historikoa

Azterketa honen bidez testuliburueta islamari buruzko ikonoetan zein garai historiko agertzen diren ikusi nahi dugu. Neurketa-unitate gisa mendea hartu dugu, beste neurketa sistema batzuen aurrean objektibitate-maila handienaren bila. Hona hemen arrazoiak:


- Aroa onarpen zabala duen neurgaia da denbora historikoaz ari garelarik historialarien artean eta gizarte zientzialarien artean oro har; Aroen arteko muga nagusien finkapenak nahikoa onarpen zabala du... Alabaina, Aroen barne-mugaketak ez daude beti horren garbi, ez iraupenaren ikuspegitik, ezta izendapenarenetik ere. Desadosta-

sun horiek, handiago edo txikiago, mundu zabaleko historialarien artean agertzen dira, eta baita lagineko testuliburuetan.

- Aroak neurketa-unitate gisa erabiltzeak ikuspegi eurozentristaren auziaren aurrean jarriko gintuzke, izendapenak eta bakoitzaren atzeko kontzeptualizazioak Europak sortu ditu, eta ez dira erabilgarriak munduko errealitate historiko guztietan. Gure lagineko ikono asko European kokatzen dira, egia, baina beste asko hortik kanpo.
- Mendea, Aroa ez bezala, «edukiontzi» homogeneous da tamainaren ikuspegitik, neurketa-sistema ez kontzeptuala baizik eta soilik zenbakizkoa, aseptikoagoa.

Bi ohar egin behar ditugu. Batetik, sarritan azaltzen dira mende bat baino gehiago aipatzen dituzten ikonoak, batez ere mapetan. Badira sei eta zazpi mendeko epeko gertakariak hartzen duten ikono bana. Bestetik, badira mende jakinik propio aipatzen ez duten ikonoak, eta «zehaztugabe» izeneko adierazlearen azpian kokatu ditugu.

3. grafikoak lagineko mendeen maiztasuna neurtzen du, ikono-kopuruaren arabera, zenbaki absolututan.



3. grafikoa
Mendeen maiztasuna

3. grafiko horretan badira azpimarratzeko moduko datu batzuk:

Hasteko, harritzekoa iruditzen zaigu VII. mendearen maiztasun urria, hura izanik Mahomaren eta islamaren jaiotzarena. Hortik aurrera, mendeen maiztasunak kurba bikoitz baten itxura hartzen du: VIII. mendea, islamaren hedapen handienarenak maiztasun nabarmena du, asko jaisten da IX: mendean, baina gorantz egiten du gero, XII. eta XIII. mendeetan goia jo arte. Hortik aurrera jauzi handia dago hurrengo bi mendeetan.

Lagineko 2. ikasturteko testuliburu-tako programak batez ere Erdi Aroan zentratzen dira; hortik aurrera, argitaletxeek bide desberdinak har-

tzen dituzte: Elkar-2 eta Anaya-2ren programak Erdi Aroarekin batera bukatzen dira; Ibaizabal-2k eta Zubia-Santillanakoek Aro Modernoa ere lantzen dute; azkenik, Erein-2k, Aro Modernoa alboratuta, gaur egungo mundura egiten du jauzi. Islamaren presentzia xv. mendetik aurrera askoz nabarmenagoa da Zubia-Santillanako testuliburuetan.


Mende guztiak ez dira testu guztietan agertzen. Oso nabarmena da xvi. eta xvii. mendeen aipamenen urritasuna, hutsaren hurrena: sei baino ez 205 edukiren artean. Sei horietatik lau Zubia-Santillanako testuetan agertzen dira. xvi. mendean kokatutako lau ikonoetatik hiru Zubia-2n daude. Esan daiteke, islama Iberiar penintsulatik desagertzean, testuliburuetatik ere desagertzen dela... xx. menderaino.

Islamaren maiztasuna lagineko testuliburuetan erabat desagertzen da xviii eta xix. mendeetan, eta berriz agertzen da xx.ean, kopuru esanguratsuan. Bi mende horietako aipamenik ez da testuliburuetan. Europak herrialde islamiar (eta beste) asko menpean hartu zituen kolonizazioaren susperraldia garai horretan; hor da xx. mendearen bigarren erdian azaleratutako egoera gatazkatsu askoren jatorri historikoa.

Mendeak hiru multzotan bana ditzakegu, maiztasunaren arabera:

- % 11-% 15: lau mende: xii, xiii, viii, xx: Errekonkista termino oso auzian jarritakoaren loraldian, eta ibilbide historikoaren bi muturretan.
- % 7-% 10: lau mende: xi, x, Zehaztugabe, ix: Iberiar penintsulan islamaren nagusitasunarenak. Horiekin batera, Zehaztugabe.
- % 0-% 4: zazpi: vii, xviii, xix, xvii, xvi, xv, xiv Oro har Aro Modernokoetan eta mundu Garaikidearen hasierakoetan, Iberiar penintsulan islamaren presentzia instituzionalaren galeratik aurrera. Horiekin batera, islamaren sorrerarena.

Ikono-moten artean bat nabarmentzen da denbora historikoarekin duen lotura estuagatik: mapa historikoa. Ondorengo 4. grafikoan mendez mende mapen eta mendeen maiztasuna lotuko ditugu elkarren artean:



4. grafikoa
Mapen maiztasuna aipamen kronologikoetan

Aipamen kronologikoa duten ikonoetan mapen maiztasuna handia da, batzuetan kopuru osoaren erditik gorakoa, esaterako VII., VIII. eta XIV. mendeetan.

Azkenik, 6. taula honek erakusten du zenbat menderi buruzko aipamena egiten den testuliburu bakoitzean.

6. taula
Testuliburu bakoitzeko mende kopurua

Testuliburu	Elkar-1	Elkar-2	Anaya-1	Anaya-2	Erein-1	Erein-2	Ibaizabal-1	Ibaizabal-2	Zubia-1	Zubia-2
Mende kopurua	0	12	0	11	0	6	0	12	5	9

Seitik hiruk, erdiak 11-12 mende lantzen dituzte; horien erdian dabilta bost eta sei dituzten Erein-2 eta Zubia-1. Eta, erdibidean, Zubia-2, bedertzirekin.

Heterogeneitatea nagusitzen da testuen artean mende bakoitzari eskaintako maiztasunaren esparruan. Esaterako, Anaya-2k tarte nabarmena eskaintzen die VIII., IX. eta X. mendei, baina ez besteei. Aldiz, Zubia-2n beste guztietan baino maiztasun handiagoa du XII. mendeak.

Bestalde, nabarmentzekoa da ia denak hasten direla VII. mendeko aipamenekin; salbuespena Zubia-2 da, hiru mende beranduago ekiten baitio; hala ere, oso kontuan hartzekoa da aldi berean, Zubiako bi liburuetan jarraikortasun kronologiko bat dagoela islamaren agerpenaren inguruan, beste lau argitaletxeetako programetan ez bezala.

4.1.1. *Subjektu historikoa*

Mende horietako gai historiko nabarmenenak aztertuko ditugu ondoren, elkarren osagarriak direlakoan. Mendeak, nolabait, Historiaren «edukion-tzi» diren neurrian, gaiok edukia bera dira. Jakina, ezarritako azpikategoria batzuek azpisaikapen gehiago onar dezakete beren baitan, esate baterako:

- Gurutzadak bat baino gehiago izan ziren, eta denbora-tarte handi edo txikiago batekin elkarren artean.
- Errekonkista, izan bazen, ez zen prozesu jarraikorra izan, susperraldi eta geldialdi faseak izan zituen. Errekonkista kontzeptua oso eztabaidatua da, baina ez dugu hemen aztertuko; termino hori hautatu dugu testuetan eskuarki erabiltzen delako oraindik, eta batasun kontzeptuala ematen duelako, ulertzeko lagungarri egiten delako.
- Gauza bera esan genezake taifen erresumen aldiaren eta Otomandar inperioaren inguruan.

Oso kontuan hartzekoa da gai hauek guztiak irizpide kronologikoaren arabera zehaztu direla; horixe da testuliburuek beren eduki historikoak antolatzeko eta horietan kategoria historiko-sozialak txertatzeko irizpide ohikoena, baita gure laginekoetan ere. Irizpide horrek edukiak uniformizatzeko bidea erraztu, eta elkarren arteko konparazioak egiteko aukera bideratzen du.

Alabaina, azpikategoria jakin bat, hain zuzen maiztasun handiena duena —hurrengo ia-ia bikoizterainokoa—, ez da bat etortzen irizpide kronologiko horrekin. Alegia, «Gerra/gatazka» izeneko azpikategoria noiz-nahi agertzen da,aldi historiko guztietan. Nahiz beste kategoriekiko desberdina den izaeraz, oso esanguratsua da kopuruari begira: 30 ikonotan agertu da, eta hori kategoriako eduki guztien % 27 da. Gainera azpikategoria aberatsa da, jarraian saiaturako gara hori azaltzen:

«Gerra/gatazka» azpikategoria aberatsa da ematen duen informazioaren aldetik, batez ere genero-ikuspegitik: Gatazka edota gerra ikono ia guztietan, gizonezkoen nagusitasuna ia erabatekoa da: gizonezkoak agertzen dira holakoetan batez ere, taldeka, eta sarri talde handitan. Lagineko ikonoeetan gerra jarduera erabat maskulinoa da, emakume bakar bat agertzen da, hiru testuliburutan ikono errepikatu batean, eta bera gerra ondoko bakean: Gaztelako Isabel erregina. Aldiz, gerra irekiak ez, baina gatazkak islatzen dituzten ikonoetan, nabarmenago agertzen dira emakumeak, bi ikonotan: batek, bereber herriaren egoera gatazkatsuari buruz, etxe barruko bizitza agertzen du, gizonezkorik gabe. Bestean, Palestinarekiko elkartasunezko manifestazio baten buruan, neskato bat ageri da gizonezkoen artean. Beraz, gatazkan ere, emakumeen lekua, leku pribatua da, eta gizonezkoek «baimendutako» publikotasuna.


Genero irakurketaren haritik ere, bada testuetan atzeman ez dugun ukitu katastrofista batez jantzitako gai bat. Nahiz eta prentsan oso ohikoa den, testuliburuetan ez da ageri emakumea gerra edo bortizkeria ekintzaren ondoriozko minaren adierazle.

Bestalde, gerra eta gatazka, esparru geografiko guztietan eta mende guztietan agertzen dira testuliburuetan, baina berebiziko maiztasunez x. eta XIII. mendeen artean.

Bi ikono-mota nagusitzen dira: margoak, eta boterearen banaketaren aldaketak islatzen dituzten mapak. Margoetako batailak oso lotuta agertzen dira arkitektura militarren ikonoeekin. Baita, agian harrigarria eman badezake ere, hiritar habitatarekin.

Gerra irudietan bada Euskal Herria zuzen ukitzen duen adibide bat, Elkar-2n, eta Euskal Herriko mugetatik kanpo: Jaengo probintzian gertatu Navas de Tolosako batailaren kolorezko eta tamaina ertaineko ikonoa da, Nafarroako armarriko kateen jatorri historiko-mitologikoa, Nafarroako soldaduen partaidetza erabakiorra izan zuena.

Segida kronologikoan dauden azpikategorien maiztasuna ikusi nahi dugu 5. grafikoaren bitartez. Azpimarratzekoa da «Gerra/gatazka» izenekoak guztien % 24 hartzen duela, emaitzen laurdena alegia:



5. grafikoa
Gai historiko nabarmenenen maiztasuna

5. grafikoak beste kategoria batzuetan baino banaketa orekatua islatzen du, Otomandar inperioaren tamaina txikiagoa salbuespena bada ere. Aurreko atalean azaldu dugunez, Erdi Aroa testu guztietako programetan lantzen den bitartean, Aro Modernoa hiru testutan baino ez. Gainera, Aro Modernoan, oro har urritu egiten da islamari eginiko arreta.

Gainera, Iberiar penintsulako eduki historikoetara jotzen dute bereziki testuek: «Errekonkista», «Al-Andalus» eta «Taifak» azpikategoriak guztia-
 ren % 39 hartzen dute. Testuliburuaren ikuspegia batez ere «estatalista» da, alde horretatik.

Errekonkista azpikategoriaren harira, bizpahiru hamarkadatik hona kritikatu den termino hori ez da zenbait testuliburutan ageri. Elkar-2k ez du aipatzen; Anaya-2k «kristauen aurrera egitea» aipatzen du; Ibaizabal-2k ikuspegi politikoa (gertakarien Historia) baino joera sozial-kulturalagoa dauka. Beste hiru testuliburuak bai erabiltzen dute terminoa. Alabaina, molde batera edo bestera deituta ere, eduki-kopuruan bigarrena da, eta batez ere mapak dira ikono horiek.

4.1.2. Geografia

Atal honetan ikonoen kokaleku geografikoa aztertzen da, hainbat eskualde geografiko handi berezita. Ohar batzuk egin behar ditugu kontzeptua ulertu ahal izateko.

Berez eta lehen asmoz, eskualde kultural eta historiko nabarmenak hartu ditugu. Nahiz eta batzuetan sailkapen eta izendapena europarrek egina den, beste batzuetan islamiar kulturaren tradiziokoak dira, esaterako Magreb. Edozelan ere, batzuk zein besteak aski ezagunak dira adituen eta kaleko jendearen artean:

- Arabiar Penintsula — Ekialde Hurbila — Ekialde Ertaina,
- Magreb, eta, batera, Niloren harana (praktikan soilik Egipto jaso dugu).

Beste batzuk, eskualde geografiko hertsia gisa agertzen dira:

- Iberiar Penintsula; praktikan ez da Portugaleko aipamenik batere.
- Euskal Herria. Nahiz eta entitate azpiestatala izan egun, interesgarria iruditu zaigu laginak Herriari berari zenbateko tartea eskaintzen dion aztertzea.
- Asia Txikia (Turkia). Eskualde horren esparru estatal garaikidea Turkiak betetzen du. Islamiar munduan berezitasun nabarmen ugari gunea da, eta historikoki jokatu duen paper berezituak ere gomendatu digu bera soilik aipatzea.

Bestalde, badira hedaduraz horiek baino eskualde zabalagoak, kontinente osoak:

- Europa — Asia — Afrika

Azkenik, beste bi azpikategoria geografikok azalpen berezia eskatzen dute:

- Mundua: mundua osotasunean hartzen duten ikono apurretarako.
- Mediterraneo: nahiz eta berezietan berezia izan, beharrezkoa iruditu zaigu Mediterranear itsasoaren aroko herrialdeen multzoa adierazteko. Azpikategoria hori dezente erabiltzen da ikono historikoetan, gehienetan esplizituki.

Hona, 7. taulan, eskualdeen maiztasuna, aleka (lehen ilaran) eta proportzioz (bigarren ilaran):

7. taula
Eskualde geografikoen maiztasuna

Iberiar penintsula	Euskal Herria	Ekialde Hurbila	Arabiar penintsula	Ekialde Ertaina eta India	Magreb eta Nilo	Asia Txikia (Turkia)	Afrika	Asia	Europa	Mundua	Mediterraneo
66	2	30	20	11	17	8	4	3	8	1	11
% 37	% 1	% 17	% 11	% 6	% 9	% 4	% 2	% 2	% 4	% 1	% 6

Iberiar penintsula nagusitzen da beste edozein esparruren gainetik, 66 ikonotan agertuz, Euskal Herriko biak aparte. Maiztasunari dagokionez

hurrengo multzoan Arabiar penintsula, Ekialde Hurbila eta Magreb agertzen dira. Arabiar penintsularen kasuan Saudi Arabia da agerpen anekdotikoa ez duen herrialde bakarra, nahiz eta bi une historikotan agertzen den batez ere: VII. mendeko islamaren sorreran, eta XX. mendean. Horrez gain, baina ia testimonialki, Oman, Qatar, Emirerri Arabiar Batuak eta Yemen agertzen dira.

Magrebeko herrialdeak eta Egipto orekatuago agertzen dira, nahiz azken hori soilik XX. mendean, lau aldiz. Kasu honetan, nabarmentzekoa da berberen egoerari buruzko aipamen bakar bat, eta bakar bat ere ez Saharar herriarenik. Oro har, herrialde jakinen presentzia eta ausentziei erreparatuta, nabari da Espainiaren gertuko herrialde islamiarrez, eta Turkiatz eta Saudi Arabiaz gain, egoera gatazkatsu edo bortizkeriekin «lotuta» dauden herrialde edo uneak sarriago agertzen direla. Esaterako Irak, Afganistan, islamiar iraultzaren garaiko Iran, Palestina eta Jerusalem agertzen dira.

Iberiar penintsulari dagokionez, propio indibidualizatutako Espainiako bi hiri nabarmentzen dira: Granada 15 eta Kordoba 11 aldiz, denak Erdi Aroko mendeetan. Ondoren, Sevilla 3 bider eta Zaragoza 2 bider agertzen dira. Jauzi handia benetan. Esan behar da islamaren presentzia historiko luzea eta bere eragina, bi hiri horiek sinbolizatzen ditela, hain zuzen kalifaldiko hiriburu eta azken presentzia instituzionalaren hiriburu izandakoak. Aipamen horren gerizpean uzten dute bestelako presentzia ugari eta aberatsak.

Agerpenak oso lotuta daude oro har Erdi aroko musulmanen etorrera, ezartze, eta ondoriozko borrokaldi politiko-militar luzearekin, baina bereziki Iberiar penintsularen kasuan. Gorabehera politiko-militar horiek ahuldu ahala, desagertzera jotzen du islamaren presentziak testuliburuetan.


Nahita, Euskal Herriko aipamen grafikoak penintsulatik bereizita begiratu ditugu: propio bi ikono baino ez daude: bata Nafarroako Erresumaren XI. mendeko mapa (Elkar-2, 168. orr.), eta, bestea, Tuterako alde zahararren airetiko ikuspegia, katedrala nagusitzen delarik, arabiarren eragina jasotzearen adibide (Erein-2, 157. orr.). Ibaizabalekin batera lagineko hiru argitaletxe jatorriz bertokoak izanda, nahikoa emaitza pobrea iruditzen zaigu.

Aipamen xume bat «Mundua» azpikategorian bildutako bi ikonoen gainean: biak ala biak mapak, islamarekin lotutako zenbait ezaugarriren banaketa edo frekuentzia islatzeko erabili dira, eta gaur egungo munduan: musulmanen proportzioa munduko herrialdeetan, eta mesquita nagusien kokapena.

4.1.3. *Arkitektura*

Adierazpen artistikoen artetik berezi egin dugu Arkitekturari dago-kiona, presentzia bereziki handia duelako laginean, eta berebiziko garrantzia ematen diolako bere funtzionaltasun eta esangura publiko eta pribatuak. Kontuan hartzekoa da Arkitekturaren bidez botere erlijiosoa edo zibila ere azaleratzen dela.

Kategoria honetako edukiak hiru azpikategorietan banatzeko irizpidea funtzionaltasuna da, 6. grafikoak portzentualki adierazi bezala:



6. grafikoa
Adierazpide arkitektonikoen portzentaia

Beraz, elementu arkitektonikoak hiru multzo handitan banatu ditugu. Horien artean, asmo militarrez eta zibilez eraikitakoek, elkartuta, % 57 dira; beste ia erdia arkitektura erlijiosoa da. Gainera, 18 ikonotan, izaera militarra eta zibila elkarrekin batera agertzen dira. Ale gutxi batzuetan ere, hirutan baino ez, zibila eta erlijiosoa eskutik doaz, baina beti ikonoan elementu bat baino gehiago agertzen direnean, eta inoiz ez, elementu arkitektoniko berean funtzio biak ematen direlako.

Arkitektura militarren alorrean, batez ere harresiak —4 aldiz— eta gotorlekuak agertzen dira. Gotorlekuen adibide zehatzak badaude, nahiz eta bat gailentzen zaien beste guztiei: Granadako Alhambra, 11 bider agertzen baita individualizatuta. Horrekin batera aipamen zehatz bina daude Zaragozako *Alfajerari*, Kordobako Medina Azahara eta Sevillako *Torre del Orori*. Hiru lehenak aldi berean jauregi eta gotorleku zirenez, arkitektura zibilaren azpiatalean ere agertuko dira, Alhambra bera bezala. Bistan da, kasu individualizatu horietan Espainiako adibideak nagusitzen direla, hortik kanpoko adibide bakarra baitago, Siriako Zaldunen Kraka, bi aldiz. Bereziki argazkietan, beren jatorrizko funtzioa galdua eta pertsonarik gabe agertzen dira, egun galdu dute funtzio defentsiboa, eta asmo artistiko edota historikoa nagusitzen da ikono gehienetan.

Arkitektura zibilean bi multzo handi daude: batetik jauregiak eta gizar-teko goi mailakoen eraikuntzena, eta bestetik arkitektura zibil arrunta. Gure laginean boterearen antolaketan parte hartu dutenen Historia nabarmentzen da. Horren kariaz, ikonoetan erabat nagusitzen da Iberiar penintsulan dagoen Alhambra jauregia, 11 ikonotan dago, tartean baita

Generalifeko lorategiak. Bina aldiz Zaragozako *Alfajeria* eta Kordobako Medina Azahara daude, biak botere zibilaren eredu.

Hala ere, etxe arrunten 6 adibide ere badira, eta horiekin batera baita arabiar arkitekturako beste elementu zibil bereizgarri batzuk ere: azoka bi aldiz, bainuetxeak hiru aldiz, eta lorategia behin, etxe arruntekin lotuta. Egungo herrialde arabiarretako, eta lehen garaietako hedapeneko eta Iberiar penintsulako kasuak dira. Salbuespena Istambulgo behatokiaren ikono bakarra da: irudi-oinak azaltzen du, baina ez da eraikuntza horren eta bere funtzioaz bestelako azalpenik ematen, ezta testuan ere.

Zalantza gabe, arkitektura erlijiosoa da lagineko nabarmenena, ale kopuruagatik, zein aniztasun tematiko eta geografikoagatik. Xehetasun mailagatik ere, beste kategorietan baino sarriago erakusten dira elementu bereizgarriak, apaingarriak. Hori bai, eraikuntza-mota jakin bat erabat nagusitzen da: meskita. Horrez gain, mausoleoen bi ikono jaso ditugu: Damaskokoa eta Indiako Taj Mahal ospetsua.


Eta meskita indibidualizatuen artean ere bat nabarmentzen da maiztasunean, eta bera Iberiar penintsulakoa: Kordobako meskita 11 bider agertzen da; alabaina, esan bezala dispersio geografikoa beste bi azpikategorietan baino askoz zabalagoa da: Mekako meskita (Saudi Arabian) 4 bider, Damaskokoa (Sirian) 5 bider, Kairuangokoa (Tunisian) 2 bider, Harkaitzekoa (Jerusalemen) 4 bider, Sevillakoa eta Toledoko meskita bat behin, eta Hassan II.enarena (Rabaten, Marokon) beste behin.

Gainera, ikono dezentek meskitaren elementu osagarriak azaltzeko go-goia islatzen dute: arkuak, ikuspegi artistikoan —4 bider—, minaretea eta bere funtzioa —5 bider— meskitaren plano ideala —behin—, kupula —bitan—...

Azpikategoria honetan ere ikuspegi artistikoa nagusitzen da, bereziki Iberiar penintsulan: kultu-lekuak izan ziren baina egun funtzio hori erabat edo neurri batean galdu duten kasuak nabarmentzen dira (Toledo), edo funtzioa galdu ez baina beste erlijio batera bihurtutakoak (Sevilla, Kordoba); funtzioari baino alde artistikoari begiratzen diote. Alabaina beste bi azpikategoriak baino «humanizatuagoa» agertzen da, bereziki gaur egungo herrialde islamiarretako ikonoetan, eta, batez ere, Mekakoetan: ez da arkitektura hutsa, gizakiz jantzia eta funtzioz jantzia baizik. Kaabaren kasua dela eta, meskitaren patioa eta bertan gordetzen den harri beltz estalia erakusten dute denek, Kaaba, islamaren leku sakratuenetakoa. Mekako ikonoetan airetiko plano orokorrak dira nagusi, jende-salduez gainezka, Kaabaren inguruan biraka. Damaskoko eta Rabateko kasuetan, pertsonak ez dira antzematen, baina meskita horiek hirigintza jakin batean erabat txertatuta agertzen dira, sare urbanoaren osagarri.

4.1.4. *Habitata*

Ikonoetan hiritar eta nekazal habitataren maiztasuna jasotzen du 7. grafikoak. Soilik espazio ireki eta zabalak dituzten ikonoak hartu ditugu aintzat, eta ez barne-espazioak —etxe barruak, arkitekturaren xehetasunak—, horietan gaitza baita delako espazio jakin horren testuingurua antzematea.



7. grafikoa

Habitat motaren maiztasun portzentuala

Grafikoak konfirmatu egiten du islamiar kulturari buruzko topiko bat: ohikoa da islamiar kultura batez ere urbanotzat jotzeko joera. Laginean hiritar habitataren isla nabarmen nagusitzen da, 29 irudi guztira, eta soilik 8 nekazal habitatari lotuak.

Hiritar habitataren azpikategoriako 8 iruditan islamiar hirigintzaren xehetasunak azaltzeko asmoa dago, oso bereziki bitan: Anaya-2, 175. orr., eta Ibaizabal-2, 100-101 orr. Islamiar hirigintzaren idealizazioak dira, lehena marrazkiz eta Erdi Aroko hirigintzaz, bestea, berriz, argazkiz eta hirigintza garaikideaz. Biek hiri-ondoko nekazal espazio hurbila erakusten dute.

Hiritar eszenak eta irudiak argi nagusitzen diren arren, gutxi dira hirigintza modernoa erakusten dutenak: Kairoko eta Bagdadeko kale irudiak, zeinetan nolabaiteko anabasa-giroa sumatu daitekeen, eta horiek dira jendea kalean erakusten duten bakarrak. Eta, batez ere, Rabateko airetiko ikuspegiaren ikusten dira eraikuntza luze eta modernoak. Oro har, ikono hauek ez dute oso hiri humanizatua erakusten.


Nekazal habitatari lotutako ikono gehienek harreman zuzena dute jarduera ekonomiko jakin batekin, nekazaritzarekin. Lagineko zortzi ikonoetatik hirutan agertzen da nekazaritza-jarduera, ia erdia. industria-jarduera jasotzen duten hiruetatik bat nekazal giroan kokatzen da, artisautza edo in-

dustria tradizionala irudikatzen du. Neurri handi batean nekazal gunea lanerako leku gisa islatzen da, ez bizitzaren beste esparruetarako.

Gure aurreiritziek bultzatuta espero genitzakeen topiko batzuk oso gutxi agertzen dira, esaterako: basamortua propio erakusten duen ikono bakarra dago; oasia eta bertako bizimodua propio erakusten duenik, bat ere ez (soilik hirigintza idealizatzen duen ikono bateko eduki solte eta agian deskontestualizatua [Ibaizabal-2, 100-101 orr.]).

4.1.5. *Ekonomia*

Kategoria honetan ere azpikategoria bat nabarmen nagusitzen da. 8. grafikoan sektore ekonomikoen maiztasuna neurtzen da, aleka. Ohar gisa, laugarren azpikategoria —zehaztugabe— esangura gutxiko salbuespentzat jotzen dugu, baina laginaren tamaina txikia kontuan hartuta, nahiago izan dugu ez baztertzea; bertako ikono bakarrean lan-jarduera ikusten da, baina ez da antzematen, ez adierazten, zein lan mota den.



8. grafikoa
Jarduera ekonomikoen maiztasuna

Aurreko kategoria aztertzerakoan aipatu bezala, lehen sektoreko % 14 —hiru ikono— nekazal habitatarekin lotzen dira, tradizioko bizimoduarekin uztartuz. Gainera, hiru ikonoek motibo berbera erabiltzen dute, arabiar kulturak Europako mendebaldera Erdi Aroan ekarritako asmakizun tekniko bat: noria —irudi berbera hiru kasuetan—. Noriaren aipamena azpimarraztekoa da, nekazal tekniketan arabiar kulturak ekarritako aurrerabidea errekonozitu egiten duelako, baino ez dago beste ezer lehen sektorearekin lotuta, nahiz eta herrialde islamiar gehienetako biztanleriaren kopuru handi bat nekazal esparruetan eta lehen sektoreko jardueretan bizi den. Eta aipa-

men horiek Erdi Aroko bizimoduarekin propio lotuta daude, irudi-oinak eta ondoko testuak lagun.

Bigarren sektoreari dagokionez, dispersioa da nagusi ikono apurretan: irudi batek ehungintza tradizionala erakusten du; beste batek molde modernoko zelulosa-industria bat; hirugarrenak, petrolioaren ustiakuntza. Ezer baino lehen, aipatzekoa da hiruak testu berean daudela, Zubia-2n. Beste guztietan ez da aipamen bakar bat egiten bigarren sektorearen garrantzi historikoaz, ezta egungoaz ere.

Azkenik, hirugarren sektorean, testuetan erruz banatuta hainbat gai agertzen dira, nahiz eta bat ere ez Elkar eta Ereinekoetan; sektore honen trataera, kuantitatiboki zabalagoa izateaz gain, askoz ere anitzagoa da... nahiz eta ez topikoetatik libre: eduki gehien hartzen dituzten motiboak karabana (lau ikonotan) eta mapen bidez adierazitako merkatal-bideak (hiru ikonotan) dira.

Maila apalagoan beste gai batzuk agertzen dira: bazarra eta zeramika saltzeko postu bat. Azkenik, aipatzekoak dira, txanpona eta, batez ere, Aro Modernoko enbaxada bat, hain zuzen Otomandar inperioarena Venezian (Zubia-2, 159. orr.). Enbaxada horiek ez ziren soilik merkatal gaietara mugatzen, eta agerpen bakar horri garrantzia handia ematen diogu, Erdi Arotik zetozen enbaxadak diplomazia modernoaren jatorria izateaz gain, era guztietako harreman politiko, komertzial, kultural eta artistiko aberatsen isla delako, nahiz eta sarritan ez den testuetan behar besteko garrantziaz agertzen.

4.1.6. *Erlijioa*

Lanaren sarreran esan bezala, Erlijioa kategorian kontuan hartuko ditugu Islam erlijioaren printzipioak eta historia, eta musulmanen fede-bizitzaren ingurukoak, eta ez erlijo-arkitekturarekin zuzen lotutakoak eta Mahomaren ibilbide historikoa. Jarraian gaika antolatu ditugu ikonoak:

8. taula
Erlijioaren aipamenak

Islamaren zutabeak			Fedearen elementu garrantzitsuak				Bestelakoak	
Otoitza	Erromesaldia Mekara	Limosna	Madrasa	Imana	Madrasa	Imana	Ur aska	Islamaren presentzia munduan
5	6	1	1	1	1	1	1	3

Islamaren bost zutabe edo aginduetatik hiru agertzen dira soilik, horietatik bi portzentualki nahikoa garrantziaz: erromesaldia Mekara, otoitza, limosna. Erromesaldia, Mekako Kaabara iritsita irudikatzen dute sei iko-

noetatik lauk, oso irudi ikusgarritan. Lagin osoan ikono jendetsuenak dira, zalantza gabe, nahiz eta jende-saldoak airetik ikusita masa bihurtzen diren: ez dira pertsonak bereizten, masa antzematen baizik.

Otoitza ere bost bider agertzen da, horietako batean *imanak* zuzentzen duelarik. Otoitzak pertsonenganako hurbilpen bat dakar, eskala aurrekoan baino gertuagokoa da.

Edonola ere, biak islamari buruz mendebaldeko kulturak osatu duen inkontziente kolektiboaren baitan indar iradokitzaile handiko irudiak dira.

Aldiz, limosnari buruzko ikono bat bakarra dago; eta islamaren beste bi zutabeei buruz ikono bat bera ere ez: baraualdia Ramadan aldian, eta fedearen aitormena. Badirudi islamari buruzko ezagutza topikoen gainean oinarritzen dela, aurrez ezagututakoen gainean, eta pentsatzeko da islama hori baino errealitate erlijioso konplexuagoa dela, baina lagineko ikonoe-tan behintzat, erosotasuna nagusitzen da.

Bide horretatik gehien aldentzen den argitaletxea Zubia-Santillana da; bere bi testuetan, baina batez ere 1. ikasturtekoan, ohiko horiekin batera, horren ezagunak ez diren beste errealitate batzuen irudia agertzen da, esaterako: errebelazioaren irudi bi —ale banatan—, *madrasa* edo eskola koranikoa, non ikasleek Koranaren berri eta bertako hitza ikasten duten, *imanaren* figura eta papera otoitzaren zuzendari, meskitako sarrerako garbiketa espiritualerako ur-aska, eta mundu zabaleko meskita nagusienen mapa.

Harritu egin gaitu laginean gerra eta gatazkari buruzko ikono-kopuru ederra dagoen arren, *yihad* edo «gerra santu» izenpean bat bera ere ez egoteak.

Azkenik, laginean islamaren gaur egungo hedapena agertzen duten hiru mapa daude: lehenean, islamaren hedapena mundu zabalean; bigarreanean, Asia eta Afrikan; hirugarrenean, munduan zehar meskita nagusien kokapena adierazten da.

4.1.7. *Kultura*

Kultura kategorian atzeman ditugun 14 ikonotan bi alderdi nabarmentzen dira. Batetik zientziara islamiar kultura klasikoak egindako ekarpena, dela asmatzaile gisa, dela transmisore gisa. Bost ikonok mundu zientifikoa eta asmakizun eta aurrerapen teknikoak darabilte: astrolabioa, kartografia, medikuntza (Abizena medikua)... kontuan hartu gabe nekazal teknikaren alorrean aipatutako noriari buruzko 3 erreferentziak.

Beste esparrua arte txikiena da, batez ere zeramika —bost agerraldirekin—, eta arkitekturaren apaingarri aberatsak: arabeskoak, ataurikeak... Aldiz, laginak ez du jasotzen Erdi Aroko arabiar literaturari eta bere garrantziari buruzko aipamen handirik. Bi ikonotan baino ez: batean, Aladinoren ipuina aurrentzako euskarazko bertsioan, eta, bestean, Erdi Aroko klasiko baten aipamena: Calila eta Dimna.

4.1.8. Generoa

Gorago esan bezala, frogatuta dago oro har testuliburuetakako ikonografiaren zati handi bat, % 25etik gora batez beste, pertsonen ikonoek osatzen dutela (Bilbao & Ezkurdia & Perez Urraza 2004, 137). Jarraian, gizakien presentziaren maiztasuna jaso eta genero harremanen ikuspegitik aztertu nahi dugu.

Lehenik eta behin ikonoetako pertsonen maiztasun kuantitatiboari erreparatuko diogu, 9. taulan. Horretarako lau azpikategoria sailkatu ditugu:

- Gizonezkoa
- Emakumea
- Batera: ikono berean bietatik agertzen denean
- Berezi ezina: ezin direnean bereizi
- Besteak: pertsonarik ez dituzten ikonoak

9. taula
Generoen arabera banaketa, ikono guztien artean

	Gizonezko	Emakume	Batera	Berezi ezina	Besteak
Edukiak	43	4	11	4	134
Portzentaia genero kategorian	%70	%6	%18	%6	—
Portzentaia lagin osoa	%22	%2	%6	%2	%68


Taulako bigarren ilarak azpikategoria bakoitzak generoko ikonoen artean hartzen duen portzentaia neurtzen du. Argi ikusten da gizonen nagusitasun erabatekoa beste hiru azpikategorien gaineratik, bai pertsonak erakusten ikonoen artean. Horretan ere, gure laginak konfirmatu egiten ditu orain arteko beste ikerketa batzuen emaitzak (Bilbao & Ezkurdia & Perez Urraza 2004, 137; Moreno 1986, 69-86; Muñoz Jordán 2004, 241). Gainera, mai-zago agertzen dira gizon eta emakumeak batera, emakumeak baino, bi bider eta gehiago. Oro har, gizonezkoak emakumeak baino 10 bider gehiago agertzen dira.

Taulako hirugarren ilarak azpikategoria bakoitzak lagin osoko ikonoen artean hartzen duen portzentaia neurtzen du. Gizonezkoen portzentaia, bakarrik, hurbildu egiten da gizaki guztien presentzia jasotzen duten ikonoen batez bestekora, lagin osoaren % 22. Bilbaok, Ezkurdiak eta Perez Urrazak goiko erreferentzian esan bezala, giza-presentzia agertzeko, gehienetan gizonezkoa ageri da. Azken urteetan emakumeen ikonoen maiztasuna handitu den arren, taula honen arabera, gure laginean gizonezkoena esanguratsua den bitartean —guztien ia laurdena— emakumeena hutsaren hurrena da.

Pertsona horiek, esparru publikoan edo pribatuan agertzen diren ala ez aztertzerakoan, 9. grafikoa jasotzen dira horri buruzko edukiak:

Gizonezkoak nagusitzen dira esparru publikoan. Emakumeak, ikusi bezala oso gutxi agertzen dira, hiru aldiz, eta inoiz ez esparru publikoan. Grafikoa oso adierazkorra da alde horretatik: emakumeen esparrua pribatuarena da. Arazoa sortu digu *chador*-a jantzitako emakume baten aurpegiaren ikono batek: lehen planoaren sakonera eskaseko argazkia izanik, atzealdeak ez du antzematen uzten zein esparrutan gauden, publikoan ala pribatuan. Bada emakume estalien gaineko beste bat: emakume bat *burka* batekin, irudi-oinak ere horrelaxe adierazten du.

Gizonezko eta emakumeak elkarrekin dauden ikonoak batez ere eremu publikokoak dira. Gizon eta emakumeak elkarrekin daudenetan, aldiz, espazio publikoa —kaleko irudiak, azokakoak— pribatuaren gainetik nabarmentzen da. Esango genuke hori dela emakumeak arlo publikoan agertzeko bidea, gizonezkoekin batera.



9. grafikoa


Generoen maiztasuna esparru publiko edo pribatuen arabera

Azkenik, berezi ezinekoak esparru publikoan baino ez dira ageri. Horrek badu bere azalpen logikoa. Ikono guztiak dira airetiko argazkiak edo ikuspegi panoramikoak, espazio zabaletan —Kaaba sarritan— jende multzoak hartuaz.

Beraz, hiru multzoen artean alde handiz nagusitzen da esparru publikoa, gizonezkoena; bikoizketa nabarmena ikusten du: gizonezko —% 75 esparru publikoan— eta emakumeen artean —bat ere ez—. Gizonak ikono askotan agertzen dira, eta batez ere espazio publikoetan; beraz, eta ondorio logikoz, espazio publikoa maizago ageri da.

Gainera, gizonak esparru publikoan agertzen diren 32 ikonoetatik ia erdiak, 14k, gerra edo gatazka islatzen dute; emakume ikonoen artean bat bakarra ere ez. Jarduera ekonomikoetan ere ez da emakume bakar bat agertzen; gizonak bai, 7 aldiz.

Bada bigarren galdera bat generoen agerpen-moduari buruz: taldean edo bakarrik? Hori erantzuteko 10. grafikoa osatu dugu, sarrera bikoitze-koa: alde batean gizakiak generoaren arabera; bestean, agertzeko hiru moduak: taldeka edo bakarka, eta kasu horren baitan, kaleko pertsona anoni- moak edo pertsonaia ospetsuak.



10. grafikoa
Generoen maiztasuna bakarka edo taldeka

Grafikoan ezaugarri bat nabarmentzen da: gizonezkoak eta taldean bil- duta osatzen den konbinazioa beste edozein baino askoz gehiago agertzen da.

Gainera, ikono horietatik gehienak, alde handiz, gerra edo gatazkari buruzkoak dira: 34 ikonotik 30.

Bigarren ohar gisa, gizonezkoak beste hiruen gaineratik nabarmentzen dira. Hau da, aurreko 9. grafikoko edukiak eta honakoak aintzat hartuta, gi- zonezkoak sarriago agertzen dira araberako konbinazio guztietan: bakarka, edo taldean, anonimo edo ezagun... baina batez eremu publikoetan; eremu pribatua emakumeentzat geratzen da. 10. taulan lagineko pertsonaia ospe- dunen maiztasuna islatu dugu.

Lau pertsonaia Erdi Arokoak dira: Aroaren hasierako Mahoma, eta bukaerako Boabdil eta Errege Katolikoak. Tarteko zortzi mendeetako po-

10. taula
Pertsonaia ospedunen aipamenak

	Mahoma	Isabel Gaztelakoa	Fernando Aragoikoa	Boabdil	Jomeini	Rushdie	Aladino	GUZT
Gizonezkoa	2				1	1	1	5
Emakumea								0
Batera	2	3	3	3				11
GUZTIRA	4	3	3	3	1	1	1	16

litikari, kultura-gizon (ez emakume), gerlari ugari... aipatzen dira, baina ikonoetan lau horiek baino ez dira ageri.

Mundu garaikidekoak bi dira, gure ustez islamaren eta mundu modernoaren gorabeheren erakusle. Salman Rushdie literatur-lanagatik da ospetsu, baina hemen kutsu politikoaz jantzita dator, bere argazkia Jomeinirenaren ondo-ondoan dago, tamaina berberaz, eta mundu modernoan islamaren barne-gatazkak azaltzen dituen atal batean.

Gizonezkoak sei dira guztira: Mahoma, Jomeini Ayatollah, Salman Rushdie, fikzioko Aladino, Fernando Aragoikoa eta Boabdil. Mahoma bitan agertzen da bakarrik, eta beste bitan emakumeekin batera. Kontuan hartzekoa da pertsonaia batzuen itxura fisikoa nahikoa desberdina izanda ere —Aladino haurra, Rushdie okzidentalizatua...— gailendu egiten dela

11. taula
Generoen agerpena testuliburuetan

	Emakumeak	Gizonezkoak	Batera	Berezi ezinak	Guztira
Elkar-1					0
Elkar-2	2	13	3		18
Anaya-1					0
Anaya-2		5	1		6
Erein-1					0
Erein-2		6	1		7
Ibaizabal-1					0
Ibaizabal-2	2	4	1		7
Zubia-1		9	2		11
Zubia-2		6	3	4	13
GUZT.	4	43	11	4	

bizar eta turbantedunaren klixea, bai Mahoma edo Boabdilen irudi idealizatuetan, baita Jomeini garaikide eta aurpegi ezagunarenean.

Emakumeen artean, ospedun pertsonaia bat bakarra aurkitu dugu, eta bera... ez da musulmana!: Gaztelako Erresumako Isabel Erregina da, hiru aldiz koadro berean agertzen da. Errege Katolikoak ageri dira Boabdilen errendizioa onartzen. Lagineko emakume ospedun bakarra, emakume musulmana ez izateaz gain, gure ustez ez dago hor emakume izateagatik, emakumeen isla gisa, bere esangura politikoagatik baizik. 11. taulan, generoen maiztasuna islatu dugu, testuliburuaren arabera.

Bost argitaletxetik hiruk ez dute emakumeren ikono bakar bat erakusten: Anaya, Erein, Zubia-Santillana. Gizonezkoak, aldiz, guztietan daude, eta gehiago dira.

Besteekin konparatuz, Ibaizabal-2n ageri diren gizonezko eta emakumeen proportzioa nahikoa txukuna da, bikoitza. Zubia argitaletxekoetan emakumerik agertu ez arren, beste hiru moten arteko parekotasun handiena erakusten du.

5. ONDORIOAK

Lan honetan XX. mende bukaerako eta XXI.eko hasierako euskarazko zenbait testuliburutako ikonoen bitartez islamari buruz zabaldutako mezuak aztertutitu, EA Erako, DBHko 1. eta 2. ikasturteetarako, eta Gizarte Zientzien esparrukoak. Jarraian ondorio orokor azpimarragarrienak zehaztutitu; horietako batzuk harremanetan daude elkarren artean.

- Ezer baino lehen, DBHko 1. ikasturteko liburuetan islamari buruz ez dela ezer ageri egiaztatu dugu, salbuespen nabarmen batean izan ezik, Zubia-1en. Programazioak osatzeko irizpide kronologikoak agintzen du oraindik ere.
- Genero-ikuspegitik irakurrita, ikuspegi patriarkala nagusitzen da. Genero maskulinoaren maiztasuna erabat nabarmentzen da. Testuliburuetan ohi den bezala, pertsonen maiztasuna ikonoetan handia da gure laginean, eduki guztietatik laurdena ingurukoa, eta gizonezkoen maiztasuna % 70era iristen da. Gizonena da esparru publikoa eta emakumeena pribatua. Gainera, esparru publiko horretan nagusi da gerra-jarduera. Ondorioz, islamiar gizakia gizonezko borrokalaria da batez ere, Amparo Morenok aipatu gizon-arketipoa nagusitzen da.
- Eurozentrismoa islatzen da testuliburuetan, Europa eta Iberiar penintsularkiko harremana bihurtzen da sarritan islama agertzeko arrazoi. Maiztasunei erreparatuz gero, islamaren agerpen ikonikoa oso lotuta dago Iberiar penintsulan Erdi Aroan izandako ibilaldi historikoarekin. Espainia eta islamaren arteko harremana ahuldu ahala,

maiztasuna ere ahuldu egiten da. Modu berean, mundu garaikideko agerpenetan, Mendebaldeko herrialde eta kulturarekin dituen harremanen bidez agertzen da, batez ere auzi politikoeekin. Ez zaio onartzen islamari bere dinamika propioa eta anitza, leku eta une desberdinetan molde desberdinak hartzera eraman duena.

- Historia positibista eta «gertakarien Historia» —arreta batez ere gertakari militar eta politikoetan, handikien bizitza eta ekintzetan... jartzen duena— nagusi dira eguneroko bizitzaren errepresentazioaren gainera. Alabaina, harrigarri iruditu zaigu horren pertsonaia historiko gutxi agertzea ikonoetan, zazpi, testuan zehar «gertakarien» ikuspegi nagusitzen den arren. Hori bai, ia denak politika eta gatazka armatuekin lotuak; salbuespen bakarrak literaturako bi pertsonaia, errealtateko Salman Rushdie, eta fikzioko Aladino. Eta, genero-ikuspegiari buruz esan dugun bezala, gizonezkoen nagusitasuna erabatekoa da. Mentalitateen Historia, gutxiengoaren Historia, eguneroko bizimoduaren Historia... XX. mendearen bigarren erditik aurrera Annales-eko Eskolak piztutako ikusmolde berriaren zantzurik apenas sumatzen da.
- Ikuspegi belizista: maiztasunari erreparatuz gero, nagusi da irudi militarista beste batzuen gainera, baita arkitekturen ere. Aipatu dugun Mendebaldeko kulturaren eta islamaren arteko harremana belizista eta elkarren arteko indarkerian oinarritua litzateke. Gabezia nabarmenena Erdi Aroan arabiar eta islamiar herri askoren garrantzia zientifikoa, eta asmakizunak sortu edota beste kultura batzuetatik Europara ekartzen jokatutako papera da.

Argialetxeen baitan joera nagusirik ba ote den aztertuta, honakoak behintzat sumatu ditugu:

- Elkar eta Erein, biak jatorriz Euskal Herrikoak, nagusitzen dira Euskal Herriari buruzko erreferentziak propio lantzerakoan, horiek bakarrik ematen baitute islamaren eta Euskal Herriaren arteko lotura zuzena duten ikono bana. Beste hiru argialetxeetan, ikono bakar bat ere ez propio Euskal Herrian kokaturik; horren atzean argialetxe estatuen errentagarritasun eta eraginkortasun ekonomikoko arazoak daude, liburuak estatuko ikuspegitik prestatzen baitituzte, gero erkidego bakoitzean moldaketak eginez (Valls 2007, 501). Zeharka, Iberiar penintsulako hainbat mapetan agertzen da Euskal Herriarekiko erreferentzia. Oso kopuru eskasa deritzogu horri, gure herriak eta islamiar kulturak historikoki izan duten harremana eskolan landu ahal izateko. Euskal Herriko zenbait gunetan, harreman hori oso sakona izan da, Nafarroako Hego aldeko erdian bereziki.
- Zubia argialetxea da oreka handiena erakusten duena islamiar kulturaren ibilbide historikoa eta gure azterlaneko kategorietan jasotako alderdi eta gaiak ikonikoki lantzerakoan. Aldi berean, bera da

islamiar kultura berezko izaera hoberen islatzen duena, mendebaldekoarekin duen harremanetatik askatuz: mundu garaikidean herrialde islamiarrak eta beraietako bizimoduak propio eta Annales-eko eskolaren ikuspegi modernoagotik lantzen da; Aro Modernoan Otomandar inperioaren gorabehera politikoak islatzen ditu, nahiz «gertakari-rien Historiaren» ikuspegitik izan.

Jasotze-data: 2008/1/4

Onartze data: 2008/2/8

Abstract

This research is an attempt to approach to some messages about islam which are transmitted through iconic means in Basque textbooks written in the last decade. These textbooks belong to the last cycle of primary education and the first cycle of ESO (Compulsory Secondary Education). The essay is an approach to islam from a wide perspective and there are nine important thematic fields which need a more detailed studying. The work focuses on the iconic expression which appears in textbooks and which is increasing both quantitatively and qualitatively, not only in them, but also in society. This work owes much of its essence to a previous plurilingual composition about the idea of islam which is transmitted in textbooks written in Basque, Galician, Catalan and Spanish languages (El islam en las aulas: Contenidos, silencios, enseñanza, published by Icaria in 1997). That composition focused on the textual part and it paid no attention to the iconic part, obviously not because of lack of interest, but because of the fact that it exceeded the first objectives proposed by the team.

Keywords: Textbooks analysis. Islam. Icons.

A través de esta investigación se pretende un acercamiento a algunos mensajes sobre el islam, transmitidos por medios icónicos en los libros de texto publicados en euskara en la última década, para el último ciclo de Educación Primaria y primero de ESO. El trabajo se acerca al islam desde una perspectiva amplia, y diferencia dentro del mismo nueve campos temáticos importantes, cada uno de los cuales merece una lectura específica más pormenorizada. Se centra en la expresión icónica de los libros de texto, cuya presencia es creciente cuantitativa y cualitativamente, no solo en ellos, sino también en el medio social en general. El trabajo se declara deudor en su espíritu de un estudio anterior plurilingüe sobre la idea del islam transmitida

en los libros de texto del Estado español (El islam en las aulas: Contenidos, silencios, enseñanza, publicado por Icaria en 1997), que en su día se centró en la parte textual y dejó de lado la icónica, por entender que, dentro del interés evidente, excedía los objetivos de partida propuestos por el equipo.

Palabras clave: Análisis de libros de texto. Islam. Iconos.

Ce programme de recherche permet d'avoir une approche de certains messages sur l'Islam, transmis par des moyens imagiers dans les manuels scolaires publiés en basque au cours de cette dernière décennie et destinés au dernier cycle de l'Enseignement Primaire et à la première année du secondaire. Le travail permet une approche de l'Islam d'un point de vue élargi et distingue dans celui-ci neuf thèmes importants, dont chacun mérite une lecture spécifique très détaillée. Le travail est centré sur l'expression iconique des livres de texte dont la présence connaît une croissance et quantitative et qualitative, non seulement dans ceux-ci mais aussi dans le milieu social en général. Le travail est déclaré comme débiteur, dans l'esprit, d'une étude antérieure plurilingue sur l'idée de l'Islam transmise dans les manuels scolaires de l'État espagnol (El islam en las aulas : Contenidos, silencios, enseñanza, publié par Icaria en 1997), qui s'est concentré à l'époque sur la partie textuelle et a laissé de côté l'aspect pictural, pour comprendre que, dans un intérêt évident, les objectifs de séparation proposés par l'équipe devenaient excessifs.

Mots clé: Analyse de manuel scolaires. Islam. Icônes.

BIBLIOGRAFIA

- ACASO, M.; NUERE, S. (2005): «El curriculum oculto visual: aprender a obedecer a través de la imagen». *Arte, Individuo y Sociedad*, 17, 205-218.
- AIXELÀ CABRÉ, Y. (2001): «¿Qué nos ofende de los «moros»? Discursos sobre los musulmanes y sus prácticas sociales». *Scripta Nova. Revista Electrónica de Geografía y Ciencias Sociales*, 94 (59). Bartzelona: Universitat de Bartzelona. (<http://www.ub.es/geocrit/sn-94-59.htm>).
- APPLE, M.W. (1989): *Maestros y textos. Una economía política de las relaciones de clase y sexo en la educación*. Bartzelona: Paidós.
- ÁREA, M. (1994): «Los medios y materiales impresos en el currículum», in SANCHEZ, J.: *Para una tecnología educativa*. Bartzelona: Horsori, 85-113.
- ARGIBAY, M.; CELORIO, G.; CELORIO, J.J. (1991): *La cara oculta de los textos escolares. Investigación curricular en Ciencias Sociales*. Bilbo: EHU.
- ARISTEGUI, G. de (2004): *El islamismo contra el islam. Las claves para entender el terrorismo yihadista*. Bartzelona: B.

- ARKOUN, M. (1997): «Islam y modernidad», in: ROQUE, M.A.: *Identidades y conflictos de valores*. Bartzelona: Icaria, 309-327.
- BALTA, P. (1994): «Los medios y los malentendidos euroárabes», in BODAS BAREA, José; DRAGOEVIČH, Adriana: *El Mundo Árabe y su imagen en los medios*. Madrid: Comunica, 29-44.
- BALTA, P. (Bil.) (2006, 2. argit.): *Islam. Civilización y sociedades*. Madrid, Siglo XXI.
- BILBAO, B. (2003): *Curriculum eta kultura Euskal Herrian*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- BILBAO, B.; EZKURDIA, G.; PEREZ URRAZA, K. (2006): «Curriculum eta testuliburuetakoa edukia». *Jakin*, 153, 89-109.
- BLANCO, N. (1994): «Materiales curriculares: los libros de texto», in ANGULO, José Félix; BLANCO, N. (koord.): *Teoría y desarrollo del currículum*. Málaga: Aljibe, 263-280.
- BLANCO, N. (2001): «La dimensión ideológica de los libros de texto». *Kikirikí*, 61, 50-56.
- BURGUERA, J. (2006): «Usos i abusos del llibre de text». *Perspectiva escolar* 302, 75-79.
- CHOPPIN, A. (2000a): «Los manuales escolares de ayer a hoy: el ejemplo de Francia». *Historia de la Educación. Revista interuniversitaria* 19, 13-37.
- CHOPPIN, A. (2000b): «Pasado y presente de los manuales escolares», in RUIZ BERRIO, Julio: *La cultura escolar de Europa: tendencias históricas emergentes*. Madrid: Biblioteca Nueva, 107-165.
- DÍAZ, C. (1997): *Manual de Historia de las religiones*. Bilbo: Desclée de Brouwer.
- DJAÏT, H. (1990): *Europa y el islam*. Madrid: Libertarias.
- ERRIONDO, L.; GARAGORRI, X.; ISASI, X. (1998): *Hezkuntzaren normalkuntza*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- ESTRUCH, J. (et al.) (2006): «El Islam», in ESTRUCH, J. (et al.): *Las otras religiones. Minorías religiosas en Cataluña*. Bartzelona: Icaria.
- ÉTIENNE, B. (2005): *¿Qué inquieta del islam?*. Bartzelona: Bellaterra.
- ETXEBERRIA, F. (2006): «Ikasle etorkinen eskolatzeta EAEn», in *Jakin*, 154, 45-56.
- EZKURDIA ARTEAGA, G. (2006): «El contenido histórico en la iconografía de los libros de texto: análisis comparativo», in NAYA, L.M., DÁVILA, P. (koord.): *El derecho a la educación en un mundo globalizado (tomo II)*, Donostia: Erein, 525-535 orr.
- FERNÁNDEZ REIRIS, A. (2005): *La importancia de ser llamado «libro de texto»*. *Hegemonía y control del currículum en el aula*. Madrid: Miño y Dávila.
- FILORAMO, G. (et al.) (2000): *Historia de las religiones*. Bartzelona: Crítica.
- FUEYO GUTIÉRREZ, A. (2002): *De exóticos paraísos y miserias diversas*. Bartzelona: Icaria.
- GIMENO SACRISTÁN, J. (1995): «Materiales y textos: contradicciones de la democracia cultural», in MÍNGUEZ, J.G.; BEAS, M. (Bil.): *Libro de texto y construcción de materiales curriculares*. Armilla (Granada): Proyecto Sur, 75-130.
- GOODSON, I. (1995): «Materias escolares y la construcción del currículum: texto y contexto», in MÍNGUEZ, J.G.; BEAS, M. (Bil.): *Libro de texto y construcción de materiales curriculares*. Armilla (Granada): Proyecto Sur, 183-202.
- GRUPO ELEUTERIO QUINTANILLA: PLATAFORMA ASTURIANA DE EDUCACIÓN CRÍTICA (1998): *Libros de texto y diversidad cultural*. Madrid: Talasa.

- HALLIDAY, F. (2005): «Islam y Occidente: “amenaza del islam” o “amenaza al islam”», in HALLIDAY, F.: *El islam y el mito del enfrentamiento*. Bartzelona: Bellerterra, 153-182.
- HOSSEIN NASR, S. (1985): *Vida y pensamiento en el Islam*. Bartzelona: Herder.
- INNERARITY, D. (2006): *El nuevo espacio público*. Madrid: Espasa.
- JOHNSEN, E. B. (1996): *Libros de texto en el calidoscopio. Estudio crítico de la literatura y la investigación sobre los textos escolares*. Bartzelona: Pomares-Corredor.
- LEWIS, B. (2004): *El lenguaje político del Islam*. Madrid: Taurus.
- LÓPEZ ALONSO, J.M.^a. (2001): «Islam», in LOPEZ ALONSO, J.M.^a: *Diccionario de Historia y Política del siglo XX* (2. argit.). Madrid: Tecnos.
- LÓPEZ RODRÍGUEZ, N. (1986): *Cómo valorar textos escolares*. Madrid: Cincel-Kapelusz.
- MAÍLLO SALGADO, F. (1996): *Vocabulario de Historia árabe e islámica*. Madrid: Akal.
- MARTÍN MUÑOZ, G. (1998): *El Islam y el mundo árabe: guía didáctica para profesores y formadores*. Madrid: Agencia Española de Cooperación Internacional (AECI).
- MARTÍN MUÑOZ, G.; MOURE, L. (2006): *El mundo árabe e islámico. Experiencia histórica, realidad política y evolución socio-económica*. Bilbo: EHU.
- MARTÍN MUÑOZ, G. (2006): «Islam: todos no son Uno», in *El País*, 2006-X-28.
- MARTÍNEZ BONAFÉ, J. (2001): «Óxido sobre el currículum en plena era digital (Crítica a la tecnología del libro de texto)». *Kikirikí*, 61, 22-29.
- MARTÍNEZ BONAFÉ, J. (2002): *Políticas del libro de texto escolar*. Madrid: Morata.
- MORENO, A. (1986): *El arquetipo viril, protagonista de la Historia. Ejercicios de lectura no androcéntrica*. Madrid: Horas y horas.
- MUÑOZ JORDÁN, A. (2004): *Marroquíes en los libros de texto de la Educación Secundaria Obligatoria (ESO). Valoraciones sobre la heterogeneidad cultural en Educación* [Doktore tesia]. Valentzia: Universitat de València. [CD-ROM formato].
- NEWBY, G.D. (2004): *Breve enciclopedia del islam*. Madrid: Alianza.
- OBIOLS SUARI, Núria (2004): *Mirando cuentos. Lo visible e invisible en las ilustraciones de la literatura infantil*. Bartzelona: Laertes.
- PEREZ URRAZA, K. (2003): *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan*. [Doktore tesia]. Bilbo: EHU.
- PEREZ URRAZA, K. (2004): *Curriculuma eta testuliburua Euskal Herrian*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- PRENDES ESPINOSA, M.P. (1997): «Análisis de imágenes en textos escolares». *Pixel-Bit Revista de Medios y Educación*, 9 [Erreferentzia elektronikoa: <http://www.sav.us.es/pixelbit/articulos/n9/n9art/art93.htm>].
- RAMÍREZ, T. (et al.) (2005): «La cultura indígena en las ilustraciones de los textos escolares de Ciencias Sociales de la segunda etapa de Educación Básica en Venezuela». *Revista de Pedagogía*, 26 lbkia., 75 zbka., 5-6.
- RICHAUDEAU, F. (1981): *Concepción y producción de manuales escolares. Guía práctica*. Paris: Serbal, Cerlal/UNESCO.
- RODRÍGUEZ NEIRA, T. (1995): «Los textos escolares, esplendor y decadencia: el papel que desempeñan en la reforma educativa», in MÍNGUEZ, J.G.; BEAS, M. (Bil.): *Libro de texto y construcción de materiales curriculares*. Armilla (Granada): Proyecto Sur, 45-74.

- ROY, O. (2003): *El islam mundializado. Los musulmanes en la era de la globalización*. Barcelona: Bellaterra.
- SÁNCHEZ NOGALES, J.L. (2004): *El Islam entre nosotros. Cristianismo e Islam en España*. Madrid: BAC.
- SEGURA, A. (2002): *Aproximación al mundo islámico. Desde los orígenes hasta nuestros días*. Barcelona: UOC.
- SELANDER, S. (1995): «Análisis del texto pedagógico», in MÍNGUEZ, J.G.; BEAS, M. (Bil.): *Libro de texto y construcción de materiales curriculares*. Armilla (Granada): Proyecto Sur, 131-162.
- SEPTIÉN ORTIZ, J.M. (2006): *Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban = Una escuela sin fronteras. La enseñanza del alumnado inmigrante en Álava*. Gasteiz: Ararteko.
- SIMONE, R. (2000): *La tercera fase. Formas de saber que estamos perdiendo*. Madrid: Taurus.
- STODDARD, P.H.; CUTHELL, D.C.; SULLIVAN, M.W. (1981): *Cambio y tradición en el mundo musulmán*. México: FCE.
- TAULÉS, S. (2004): *La nueva España musulmana*. Barcelona: Debolsillo.
- TORRES, X. (1991): *El curriculum oculto*. Madrid: Morata.
- VALVERDE ORTEGA, J.A. (1989): «Los mapas, gráficos e ilustraciones en los libros de texto. Algunos criterios para su utilización», in ICE, ESCUELA UNIVERSITARIA DEL PROFESORADO DE EGB: *II Encuentro Nacional sobre el Libro Escolar*. Sevilla: ICE-E.U. del Profesorado de EGB, 127-136.
- VALLS MONTÉS, R. (1995): «Las imágenes en los manuales escolares españoles de Historia, ¿ilustraciones o documentos?». *IBER, Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, 4, 105-119.
- VALLS MONTÉS, R. (2007): «Fuentes y referentes del saber escolar: los actuales manuales escolares (de Historia), y criterios para su análisis y valoración», in ÁVILA, R.M.^a; LÓPEZ ATXURRA R.; FZ. DE LARREA, E.: *Las competencias profesionales para la enseñanza-aprendizaje de las Ciencias Sociales ante el reto europeo y la globalización*, Bilbo: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales, 499-512.
- ZZEE (1997): *Dictionnaire de l'Islam. Religion et civilisation*. Paris: Albin Michel.